

FEMINIZIDIO/FEMIZIDIO  
ISILARAZITAKO ERREALITATEA



# aurkibidea



- |    |  |
|----|--|
| 3  | - Sarrera  |
| 4  | - Feminizidioa/Femizidioa: Errealitate Isildua                                       |
| 9  | - Elkarrizketa Marcela Benavides (Ekuador): Berdintasunaren aldeko Ekintza Politikoa |
| 11 | - Elkarrizketa Colombia-Sisma Mujer  |
| 13 | - Elkarrizketa sexu eta etxeko bortizkeriaren aurkako txileko sarea                  |



**E**gunez egun gure gorpuak, bizitza eta ametsak patriarkatuak okupatu nahi dituen lurralde bihurtzen dira. Emakumeenganako bortizkeriak, desberdintasunetan oinarritutako, sistema honen adierazpen krudelena dira, egunero gure eskubideak urratzen dituena, gure autonomia eta aukerak mugatuz. Emakumeok pairatzen ditugun biolentziak era askotakoak dira, eta era eten-gabean gure bizitza markatzen dute.

Hau, emakumeekiko kontrola, subordinazioa eta menpekotasuna mentetzeko modu bat da eta era ezberdinetan eman daiteke, biolentzia fisikotik haratago doazenak. Bortizkeria araei men egiten ez diogunoi zuzenduta dago diziplinatu eta kontrolarazteko bide bihurtu baita. Emakume izateagaitik erailtzen gaituzte. Hau inpunitate eta axolagabekeri esparru batean gertzen ari da batzuetan instituzioen utzikieriaz lagunduta.

Urteak dira latinoamerikako feministak feminizidio edo femizidio deituriko fenomeno baten inguruan ernarazten datozela, emakumeak aurre egiten dioten bortizkeria sistematikoa argitzen saiatzen den terminoa da. Hau eskualde horretan gertatzen den Giza Eskubide urraketa larrienetakoa bihurtu da. Termino honek, emakumeen aurkako biolentziaren kontzeptualizaioan aurrera pausoak ahalbidetu ditu, autore batzuk adierazten duten moduan, genero inekitatean oinarrituriko biolentzia, asuntu pertsonal edo pribatua denaren argudioa zalantzan jartzen laguntzen dute eta bere izaera soziala eta politikoa erakusten dute, emakume eta gizonen arteko botere erlazioen emaitza baitira.

Feminizidioaren larritasuna ulertzeko daukan ezinbesteko ezaugarria eza-gutu behar da hau da inpunitatea. Teoriko batzuek feminizidioa Estatu krimintzat kontsidera daitekeela uste dute, biolentziaren aurrean babes ber-matzen ez duen heinean, eta bere prebentziorako beharrezkoak diren neurriak hartzen ez dituelako.

Fenomeno honen aurrean, azpimarratu beharra dago, emakume eta erakun-de feminista askok, ekimen, kanpainia eta mobilizazioak aurrera eramaten dituztela, beren bizitzen eta gorpuen gainean burujabetasuna berreskuratzeko helburuarekin. Eskualdeko erakunde eta sare ugari egunero, emakumeen, biolentziarik gabe bizitzeko eskubidea, aldarrikatzen dute. Non beraiek izan daitezten, era aske batean bere bizi proiektuaren inguruan erabakitzen dute-nak.

Boletin honek, biolentzien aurrean, praktika feministen eztabaida teroi-koan lagundu nahi du. Lehen zatian, egun Latinomerikan gai honen inguruan dauden eztabaiden azterketa teoriko bat eskeintzen da. Gero Ekuador, Ko-lonbia eta Txileko emakume erakundeen esperientzia islatzen da. Zeintzuek emakumeen eskubideen defentsan era aktibo batean lan egiten duten eta bio-lentzia sexista lan ardatz nagusi bezala daukaten.

Mundubat, Giza Eskubideen defentsan era sakon batetan konprometitu dagoen erakunde bezala, ezinbestekoa iruditzen zaigu emakumeen aurkako indarkerieen gaiari heltzea. Analisi hau, bortizkeriarik gabe bizitzeko eskubi-dearen inguruan aldarrikapen feminista nagusiak berrartzen eta biolentzia hauek eragiten dituen sistema patriarkala zalantzan jarriz egin behar dugu. Espero dezagun boletín honek gaiaren inguran zantzu batzuk eman ditzan.

Feminizidioari edo femizidioari buruzko esparru kontzeptual orokorra

### I. Feminizidioari edo femizidioari buruzko esparru kontzeptual orokorra

Termino hau laurogeita hamarreko hamarkadako feminista anglosaxoiek sortu zuten. “*Femicide*” terminoa eleberri batean agertu zen lehen aldiz, emakume baten hilketari buruz hitz egitean. Dena dela, *Diane Russell* soziologo eta ekintzailea izan zen kontzeptu horri buruz teorizatu zuena, eta honako hauxe zela azaldu zuen: “*emakumeak emakume izateagatik erailteza*” (1982). Aurrerago, ordea, “gizonek emakumeenganako gorroto, mesprezu, plazer edo jabetza-sentipenagatik emakumeak eurak hiltzea (1990, Jane Caputirekin batera)” zela adierazi zuenez, argi eta garbi nabarmendu zuen krimen horien kutsua sexista zela.<sup>1</sup>

Azalpen horien arabera, ez da emakumeen hilketa hutsa, *motibazio sexista* egon behar delako. Beraz, motibazio hori agertzen denean, feminizidioa/femizidioa izango da, emakumea bera bikotekideak edo ezezagun batek hil duen kontuan hartu gabe. Horrela, bada, honako kasu hauek sartuko lirateke kontzeptu horren barruan: gizahilketa eragiten duen indarkeria sexuala gauzatzeari, ohore edo ezkontza-sariagatik emakumeak hiltzea, zenbait herrialdetan gertatzen den bezala... Bertan, hain zuzen ere, hiltzailea ez da bikotekidea, eta baliteke biktimarekin inolako lotunerik ez edukitzea.

Oso kontuan hartu behar da azalpen horiek ikuspegi soziologikotik egiten direla eta arlo penalean feminizidio/femizidiotzat hartutakoa baino haratago doazela, geroago ikusiko dugunez. Ikuspegi horretatik, Russellen ustez, emakumeen aurkako genero-indarkeriaren adierazpide guztiak feminizidioak/femizidioak dira, emakumeak erailtzen dituztenean. Horrez gain, *feminizidio/femizidio estaliak* ere badaudela dio, zenbait emakumeren heriotza erailketaren ondorioz gertatu ez bada ere, oinarri sexista dutelako; esate baterako,

emakumeek euren burua hiltzea, genero-indarkeriako testuinguruetan edo esklabotza sexualpean bizi direnean, euren heterosexualitatea behartua denean edo neskatilak ezkontzera behartzen dituztenean, zenbaitetan nahitaezko harreman sexualen ondorioz hiltzen direlako. Era berean, genero-irizpideetan oinarritutako ebakuntza kirurgikoen ondorioz sortutako emakumeen heriotzak ere hartzen dira kontuan; esate baterako, ezkutuko abortuak, mutilazio genitala eta nahitaezko esterilizazioa zein haurdunaldia. Gainera, zenbait kulturatan nahita nahiez gizonak emakumeen gainetik daudela ere hartu behar da kontuan. Horren ondorioz, arduragabekeria, janaren uko edo abortu selektiboagatik hiltzen dira emakumeak, Txinan eta Indian gertatzen den bezala. Russellek adierazten duenez, GIB bera ere erabateko feminizidioa/femizidioa izango litzateke. Izan ere, oso kontuan hartu behar da batez ere emakumeek matxismoaren ondorioz hartzen dutela gaixotasun hori, gizonek babesik gabeko harremanak edukitzeko eskubidea daukatela uste dute-eta.<sup>2</sup>

Ikuspegi juridikotik, heriotza horiek hilketa ez badira ere, Russellek proposatutako ikuspegiari esker, “emakumeen heriotza ugari” jarri daitezke agerian, “ordura arte zehaztu gabeko kasuak izan direlako estatistika kriminala eta sanitarioetan”.<sup>3</sup> Horrela, bada, feminizidio/femizidioaren kontzeptua zehazten da berriro, GIB bezalako arazoak beste ikuspegi batetik jorratu daitezke (eta ez bakarrik ikuspegi farmazeutiko eta medikotik) eta sexismoaren irismena dimentsionatu daitezke berriro.

Femicide terminoa bete-betean garatu da Amerika Latinoan. Hala ere, eztabaida akademiko bizia sortu da, terminoa feminizidio edo femizidio moduan itzuli behar den erabakitze orduan.

Femizidioaren alde egin duen korronea Erdialdeko Amerikan garatu da Costa Ricako Ana Carcedo eta Montserrat Cabañas soziologoek eskutik. Soziologo horiek Russellek hasieran proposatutako terminoa aukeratu dute, eta haren proposamenari eusten diote, “femizidioa” terminoa “gizahilketa edo hilketa” terminoen homologoa dela hartzen dutelako kontuan. Edonola ere, termino horien neutraltasuna uzten du albo batera, emakumeen heriotzak genero-indarkeriaren muturreko emaitza direla adierazteko.

<sup>1</sup>Diane Russell, *Femicide: politicizing the killing of females*, 2008. <sup>2</sup>Russell eta *femicidio.net* <sup>3</sup>Patsili Toledo

Hasteko, oso kontuan hartu behar da generoa eraketa soziologikoa dela eta ez biologikoa. Gainera, gizarte-harremanak zehazten dituzten elementu nagusietakoa ere bada. Genero hori gizarteratzeko prozesuaren bidez eratzen da, eta, bertan, geure generoko berezko jokabideak ikasten ditugu. Prozesu hori, ordea, ez da neutrala, besteak beste genero-desberdintasuna sustatzen duen gizarteko arauetara egokitzen behartzen gaitu eta. Hori dela eta, genero-arloko desberdintasunak zein zapalkuntza gizarteratzen ditugu, eta indarkeria bera prozesu horren barruan dagoela onartzen dugu, faktore ideologiko, moral, ekonomikoekin... batera. Egiturazko zapalkuntza-sistema horren ondorioz sortutako indarkeriagatik emakume asko hiltzen dira, eta, Carcedo zein Cabañasen esanetan, femizidioak dira. Beraz, “femizidioaren kontzeptua ere erabilgarria da, genero-desberdintasunetan oinarritutako indarkeria soziala bezain orokorra dela adierazten digulako (...), genero-desberdintasunetan oinarritutako indarkeria gai pertsonala edo pribatua dela desegituratzen laguntzen digulako eta emakumeek zein gizonek gizartean dauzkaten botere-harremanen ondorioz zeharo politikoa eta soziala dela ikusten dugulako.”<sup>4</sup>

Bestetik, “femizidioa” terminoari esker, emakumeen aurkako era guztietako indarkerien arteko lotuneak ezarri daitezke, eta, edozein indarkeria-motaren ondorioz heriotza gertatzen denean, femizidioa izango da. Indarkeriaren continuum horren gorengo adierazpena izango da, beraz.<sup>5</sup>

Beste korrontearen arabera, fenomeno hori *feminizidioa* da, eta Mexikon bertan garatu da *Marcela Lagarde* akademikoa eta politikari mexikarraren eskutik. Hain zuzen ere, 1994an termino hori erabili zuten lehenengoetakoa izan zen, *Julia Monárrez* soziologo mexikarrarekin batera.

Lagarderen esanetan, feminizidioa “muturreko indarkeria-adierazpideekin” dago lotuta, “eta, horren ondorioz, emakumeen heriotza gertatu daiteke, misoginiagatik beragatik eta estatuak zein instituzioek jokabide horien aurrean -berariaz edo isilbidez- erakutsitako tolerantziagatik”.<sup>6</sup> Autore horrek adierazi duenez,

femicide terminoa feminizidio moduan itzuli zuen, femizidioa gizahilketaren termino homologoa delako eta emakumeen hilketa baino ez duelako esan nahi. “Feminizidioa” terminoak, ordea, honako bi osagai hauek hartzen ditu kontu-kontuan, berak azaltzen duen bezala: misoginia eta estatuaren tolerantzia.

Lehenengo eta behin, emakumeen hilketa feminizidioa izan dadin, ezinbestekoa izango da misoginia egon izana, hau da, genero-desberdintasuneko harremanen ondorioz sortutako hilketa izan beharko da. Hartara, Russellek proposatutako eta Carcedok zein Cabañasek jarraitutako terminoari eusten zaio, eta, bertan, harreman sozialen adierazpidea da genero-indarkeria. Izan ere, horrelaxe barneratuta dagoenez, isildu eta ezkutatu egiten da.

Aldea, ostea, bigarren osagaien datza: *zigorgabetasuna*. Lagarderen ustez, feminizidioa estatu-krimena da, estatuak ez duelako behar beste neurri ezartzen genero-indarkeria prebenitzeko eta emakumeak babesteko eta ez etxean, ez erkidegoan... ez dituelako emakumeen euren bizia eta segurtasuna bermatzen. Gainera, krimena gertatzen denean ere ez ditu jazotakoa ikertzeko eta justizia ezartzeko eginkizunak betetzen. Horrela, bada, estatua bera feminizidioaren erantzulea izango da ekintzagatik edo hutsegiteagatik. Beraz, indarkeria sozialaren nahiz indarkeria instituzionalaren adierazpena izango da feminizidioa.

Nolanahi ere, feminizidioa edo femizidioa erabiltzen dugunean, argi eta garbi dago estatuko instituzioek gabezia handiak dituztela, emakumeen heriotza horiek prebenitzeko eta erantzuna emateko orduan. Dena dela, nagusi den zigorgabetasuna eta genero-desberdintasunak kontuan hartzen ditugun bitartean, ez da hain garrantzitsua izan behar termino bat edo bestea erabiltzea. Ezin gara emakumeen mugimenduen artean dagoen haustura gehiago irekitzeko moduko eztabaida akademikotara mugatu, eta kontzeptua aberastu eta zabaldu egiten duten termino osagarritzat hartu beharko genituzke. Azken batean, emakumeen hilketen aurka borrokatzea da garrantzitsuena, erabiltzen dugun terminoa edozein dela ere.<sup>7</sup>

<sup>4</sup> <http://www.pagu.unicamp.br/sites/www.pagu.unicamp.br/files/colenc.04.a10.pdf>, pp. 413. <sup>5</sup>Ibidem. <sup>6</sup>In Patsili Toledo. <sup>7</sup>Gaur egun, feminizidioa eta femizidioa dira emakumeen hilketa sexualei buruz hitz egiteko erabiltzen diren terminoak. Eskualdeko emakumeen mugimenduek bi adierak erabiltzen dituzte. Emakumeak Indarkeriarik Gabe Bizitzeko Amerika Latinoko eta Karibeko Sare Feministaren lan-bileran (Santiago, Txile, 2006ko uztaila), terminoen edukiari buruz eztabaidatu zuten, eta argi eta garbi azaldu zuten bi terminoek gauza berari buruz hitz egiten zutela. Bertan erabaki zutenez, herrialdeek nahierako terminoa erabili ahal izango dute krimen-mota hori izendatzeko, feminizidioak eta femizidioak gizahilketa neutraletik bereizten dutelako emakumeen hilketa. Cladem, 111. or.

## II. Emakumeen aurkako indarkeriaren zergatiak

Feminizidio/femizidioari dagokionez, aurreko atalean aztertutako azalpenetan, emakumeen aurkako indarkeriaren zergatiak honako hauexek direla adierazten da: “emakume izatea” (Russell); “emakumeenganako gorrotoa, mesprezua, plazera edo jabetza-sentipena edukitzea” (Russell eta Caputi); misoginia edo sexismoa agertzea (Lagarde); harreman sozialak desberdintasunezkoak izatea; indarkeria soziala eta instituzionala egotea...

Hona hemen emakumeen aurkako indarkeriaren arrazoi nagusia: desberdintasunak. Izan ere, horren adierazpen gorena feminizidioa/femizidioa izango litzateke, eta gainerako zergatiak ere hartuko litzuzke kontuan.

Desberdintasunez hitz egitean, arrazoi historiko, ekonomiko, sanitarioengatiko... *egiturazko desberdintasunez* ari gara. Bestela esanda, “emakumeen aurkako indarkeriaren arrazoi nagusiak *gizarte, ekonomia, osasun eta hezkuntzaren arloko desberdintasunen* ondorioz sortutako haustura sozialak dira”.<sup>8</sup> Desberdintasun handieneko herrialdeetan, are handiagoa da indarkeria-tasa, eta, bertan, emakumeen aurkako indarkeria dago kokatuta. Txirotasuna, gatazkak, gerrak eta giza eskubideak bermatu behar dituen estatuaren ahulezia esparru ezin egokiagoak dira emakumeen aurkako muturreko indarkeria agertzeko. Izan ere, estatuak ez dauka inolako gaitasunik, emakumeei prebentzio-bermeak zein segurtasuna eskaintzeko, eta, horrez gain, ez ditu errudunak ikertzen eta zigortzen.

Behar bezalako osasun-baldintzarik ez dagoenean ere areagotu daitezke emakumeen heriotzak, erditzeko baldintza egokirik ez dagoelako, esaterako. Gauza bera gertatzen da, askatasunik ez dutenean eta emakumeen sexu zein ugalketarako eskubideak aitortzen ez direnean, nahitaezko haurdunaldiak edo abortuak sortu daitezkeelako eta, horren ondorioz, emakumeen heriotza gertatu daitekeelako.

Estatuaren ahuleziak edo gerrak ere sustatzen dute emakumeen aurkako indarkeria. Hala ere, indarkeria hori bake-garaian ere azaltzen da, aipatutako desberdintasunez gain oinarritzko desberdintasuna ere badagoelako: *genero-desberdintasuna*; eta arlo sozial, ekonomiko, juridiko, politiko eta kulturalean dauka eragina. Hori dela eta, Lagarderen ustez, feminizidioak lotura handia dauka emakumeen gorputza gauzatzen hartzeko jarrerarekin, emakumeei “gizaki” moduan dituzten eskubideak kentzen zaizkielako. Era berean, txirotasunak daukan emakume-aurpegiarekin ere lotzen du fenomenoak:

“Hortxe bertan dago Amerika Latinoko emakume gehien artean gero eta hedatuago dagoen txirotasuna. Indarkeria horren sailkapena, ordea, are sofistikatua da gaur egun, txirotasun ekonomiko, elikaduraren arloko txirotasuna eta txirotasun gorria omen daudelako, besteak beste. Dena dela, argi dago miseria bera eguneroko bizimodu bihurtzen dela horren ondorioz. Bestetik, txirotasunaren emakume-aurpegia gero eta agerikoagoa dela esan beharra dago. Oraindik ere, gure lurretan, emakumeak eta neskatilak hiltzen dira gosegatik, gaixotasun sendagarriengatik eta haurdunaldian, erdiketan, abortuetan eta erdiberriaroen gertatutako arazoengatik. Beraz, esan gabe doa emakume guztien herritartasuna urratzen duen indarkeria juridiko eta politikoak bere horretan dirauela”.<sup>9</sup>

Aldi berean, genero-desberdintasuna bera gizartean nagusi den ideologiaren ondorioz ere sortzen da: *patriarkatua*, emakumeak gizonen mende egoteko jarrerara ezartzea eta egoera horri eustea duelako helburu. Horrela, bada, gizonen emakumeen aurkako indarkeria erabiltzen dute gizonen nagusitasunari eusteko estrategia moduan.<sup>10</sup>

Beraz, genero-indarkeriak menderakuntza-mezua igorri nahi du, eta, egitate ankerren bitartez, berdintasunezkoak ez diren harreman sozial horiek indartu nahi ditu. Azken batean, generoaren eraketa soziala da, eta, feminizidioaren bidez, emakumeen gorputza ez ezik, eraketa kulturala bera ere akabatzen da. Hori dela eta, feminizidioak/femizidioak arlo pribatutik publikora darama genero-desberdintasunean oinarritutako indarkeria.

<sup>8</sup>Cawn, p.11. <sup>9</sup>Femicidio.net <sup>10</sup>Femicidio.net

Era berean, zigor-ereduak ere paradigma patriarkalaren araberakoak direnez, legeak ezartzean eta delituak tipifikatzean ez dituzte emakumeen artean eragina duten jokabideak kontuan hartzen. Halaber, generoan oinarritutako krimenen ondorioz sortutako zigorgabetasuna bera ere gizartean nagusi den ideologia patriarkalaren adierazgarri da, horren bidez gizarteak berak emakumeen aurkako indarkeria onartzen duelako. Horrez gain, gaitzespen sozialik ere ez dagoenez, indarkeria horrek oso-oso eragin urria dauka erasotzaileen artean.

Amaitzeko, Julia Monárrezen esanetan, feminizidioa bera barrabaskeria hutsa da patriarkatuan oinarritutako gizarte sexista bezain misogino honetan, oso sexista delako gizon batek emakume edo neskatila bat noiz hil behar den erabakitzea, oso sexista delako emakumeen gorputzen aurkako egitate bortitzak garatzea, oso sexista delako indarkeria hori justifikatzean arrazoi horiek ematea, oso sexista delako ahaidetasunezko harremanetan abusuak agertzea, oso sexista delako behar besteko prebentziorik, bermerik eta eginbiderik ez egotea indarkeriako kasuetan justizia eskaintzean eta, azken batean, oso sexista delako estatua sistema patriarkalaren konplizea izatea.

### III. Zigorgabetasuna

Feminizidioaren eta emakumeen aurkako beste indarkeria-adierazpide batzuen osagaietakoa zigorgabetasuna da. Horren ondorioz, ez da behar besteko bermerik ezartzen emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, eta, indarkeria hori gertatzen denean, ez da behar besteko eginbiderik garatzen, egitate horiek ikertzeko eta zigortzeko. Estatuko instituzioen betebeharren artean dagoen justizia-administrazioa ezartzen ez denez, estatuak ez du bere erantzukizuna betetzen, eta ez ditu giza eskubideen arloan dauzkan nazioarteko betebeharrak ere gauzaten. Hori dela eta, emakumeen aurkako indarkeria-espiala sortzen da, zigorgabetasun horrek krimenak errepikatzeke gonbita egiten duelako.<sup>11</sup>

Dena dela, zergatik ez da ezertxo ere egiten? Lagarderen ustez, aurreko atalean aipatutako zergatiak zigorgabetasuna elikatzen dute, eta feminizidioaren zein emakumeen aurkako indarkeriaren arrazoen euren ondorioz sortzen da zigorgabetasuna. Gure gizartean nagusi diren desberdintasuna eta sexismoa ez daude estatu-sistematik kanpo, estatua bera eraketa soziala delako, gure gizartearen eta bere balioen erakusgarri, alegia. Hartara, zigorgabetasunak osagai sexuala daukanez, emakumeak are biktimgoak dira, eta estigmatizatu egiten dituzte, askotan estatuko organo euren emakumeak erruduntzat hartzen dituztelako. Hori dela eta, emakumeen aurkako indarkeriagileen konplizeak dira.<sup>12</sup>

Feminizidioari eta emakumeen aurkako beste indarkeria-adierazpide batzuei aurre egiteko borrokan, lehenengo eta behin arazoa bera jarri behar da agerian. Aurreko ataletan esan dugunez, feminizidioa/femizidioa nabarmen garatu da Amerika Latinoan, eskualdean aurrerapauso handiak eman dituztelako giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean eta emakumeen mugimenduen zeresana oso handia izan delako, herrialde askotan demokrazia lortzeko orduan eta fronte iraultzaileetan parte hartzeko orduan, besteak beste.

Emakumeen mugimenduentzat oso aukera ona da, emakumezko generoaren arazoak agerian jartzeko. Izan ere, genero-indarkeriaren zein feminizidio/femizidioaren arazoa nazioarteko foroetara daramatenez, nazioarteko zenbait erakunde *adierazpenak* egin behar dituzte; NBEk, esaterako. Horrela, bada, NBEren ustez, “arlotan pribatuan eta publikoan gertatzen den genero-indarkeriaren ondorioz emakumeak erailte da feminizidioa. Bertan, honako emakume hauek daude sartuta: bikotekideek, bikotekide ohiek edo senitartekoez eraildako emakumeak; jazarleek, erasotzaile sexualak eta/edo bortxatzaileek eraildako emakumeak; eta beste emakume batzuen heriotza saihesten ahalegindu ziren emakumeak”.<sup>13</sup>

Hala ere, Nazio Batuek feminizidioa adierazpenen mailan bakarrik aitortzen duten bitartean, Amerika Latinoko egoeraren ondorioz nazioarteko araudi loteslea sortu da, hau da, Emakumeen Aurkako Indarkeria Prebenitzeko, Zigortzeko eta Desagerrarazteko Amerika Arteko Konbentzioa: 1994an onartutako *Belem Do Paráko Konbentzioa*.

<sup>11</sup> Carlos Castresana cawn p.11. <sup>12</sup> Femincidio.net. <sup>13</sup> CLADEM, p. 96.

Konbentzio hori Marcela Lagardek feminizidioaren inguruan proposatutako pentsaerarekin bat datorrenez, estatuak emakumeenganako indarkeria-adierazpideen aurrean dauzkan betebeharrak nabarmentzen ditu. Konbentzioan bertan zehaztutakoaren arabera, Amerikako estatuak emakumeen aurkako indarkeria-ereduak ikertu behar dituzte, informazio estatistikoa sortu behar dute eta behar besteko prebentzio-neurriak hartu behar dituzte, besteak beste. Hartara, konbentzioa bera oinarri juridikoa da, estatuak horren guztiaren inguruan garatzen duen ekintza ebaluatzeko eta emakumeenganako indarkeria-kasuen aurrean dauzkan betebeharrak betetzeko. Era berean, feminizidioa/femizidioa kontzeptua bera ere txertatzen du, “emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptuan bertan emakumeen heriotza eragiten duen indarkeria hartzen duelako kontuan. Gainera, indarkeria gertatzen deneko edozein esparrutara ere hedatzen ditu betebeharrak horiek, “familia-ingurunean edo erkidegoan gertatutako indarkeria edo estatuak garatutakoa edo toleratua ere kontuan hartuko direla” eranstea.<sup>14</sup>

Konbentzio horren arabera, Giza Eskubideen Amerika Arteko Gortearen Epaia aipatu beharra dago: 2009ko abenduaren 19an *González en eta beste batzuen kasuan Mexikoren aurka emandako Epaia*, hau da, Ciudad de Juárezko hiru emakumeren desagertpenari, isekei eta gizahilketei buruzko *Kotoi Landako Epaia*. Epaia hori, hain zuzen ere, zigorgabetasunaren aurkako borrokan lortutako aurre-erapauso handienetakoa izan da, eta aurrekaria ere ezarri du, estatuari bere betebeharrak betearazteko eskatzen diolako, Belem Do Paráko Konbentzioaren esparruan eta genero-ikuspegiaren arabera kasuaren azterketa juridikoa egitean.<sup>15</sup>

Kasu horren aurrean, Mexikoko estatuak alegatu egin zuen gorteak ez zeukala Belem Do Paráko Konbentzioaren urraketak ikertzeko eskumenik. Horrez gain, adierazi egin zuen hiru emakume horien kasuak ez zirela emakumeen aurkako indarkeria, giza eskubideen urraketak baizik, euren senideentzako berme judizialei dagokienez. Alegazio horien aurrean, gorteak argitu egin zuen emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptuak zer esan nahi zuen, nolako inplikazioak zituena eta estatuak berak nolako betebeharrak zituen, indarkeria hori konbentzioan

bertan adierazten den bezala prebenitzeko, ikertzeko eta zigortzeko orduan. Nahiz eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptua argitu egingo zela aipatu eta Mexikoko estatuak berak gorteari “feminizidioa” terminoa ez erabiltzeko eskatu, estatua bera izan zen zenbait txosten ofizialetan Ciudad de Juárezko egoera feminizidioa zela aipatu zuena eta genero-arrazoiengatik garatutako emakumeen gizahilketak feminizidioak zirela adierazi zuena. Hori dela eta, gorteak argitu egin nahi izan zuen epai horretan “genero-arrazoiengatik gizahilketa, hau da, feminizidioa” terminoa erabiliko zuela. Horrela, bada, kontzeptuari buruzko eztabaidan sartu zen.

Epaian bertan, argi eta garbi azaltzen da Mexikoko estatuak emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokan egindako ahaleginak nahikoak izan ez direla, emakumeen eskubideak bermatzeko eta Mexikoko estatuak giza eskubideen arloan dituen betebeharrak erantzuteko. Hartara, gorteak adierazten duenez, honako hauexek dira betearazpen hori eragozten duten gabeziak: zenbaki fidagariak dituen datu-baserik ez egotea, funtzionarioek genero-indarkeriaren arloko prestakuntzarik ez jasotzea, ikerketetan eta biktimentzako kalte-ordainetan genero-ikuspegia eta giza eskubideen estandarrak kontuan ez hartzea eta kasu horien zigorgabetasunarekin lotutako funtzionarioen irregulartasunak ez ikertzea. Gortearen iritziz, estatua bera arduragabekeria zein gabezia horien erantzulea da, eta, horrez gain, emakumeen aurkako indarkeria betikotzen duen genero-bereizkeriaren kulturari berari ere eusten dio.

Gortearen ondorio horiek guztiak erreferentia dira, feminizidioari aurre egiteko eta genero-indarkeria prebenitzeko orduan, baina, horrez gain, behar besteko oinarriak ere ezartzen dituzte, estatuaren zigorgabetasunari aurre egiteko.

<sup>14</sup>Konbentzioko 1. eta 2. artikulua. Hemen aipatutakoa: Patsilí Toledo. <sup>15</sup>Cawn, 7. or.



#### Sarrera

Marcela Benavides naiz, eta Berdintasunaren aldeko Ekintza Politikoa talde feministako kidea naiz. Talde hau duela zazpi urte sortu zen, eta tokian tokiko erakundea da. Taldeko emakume sortzaile guztiok aspalditik parte hartu dugu prozesu feministetan. Talde moduan, Emakumeen Foro Nazionalako kideak gara, eta, orain, erakunde feminista eta emakumeen erakunde guztiak elkar-tzen ari den Plataforma Feministakoak ere bai. Aniztasuna handia da erabat. Horixe da aberastasuna, baina, aldi berean, arazoa ere bai. Azken urteotako antolamendu-aniztasunaren ondoren, berriro elkartzen ari gara. Berdinta-sunaren aldeko Ekintza Politikoa taldeko emakumeok ezkertiarak gara, gure borroka feminismoa da eta jabekuntza lortu nahi dugu gizartearen egitura aldatzeko prozesuan. Hain zuzen ere, borroka feminista hartu nahi dugu geu-re gain, sistema ekonomiko eta sozial zapaltzailea kolokan jartzeko orduan.

#### Zure herrialdean, zein da emakumeen aurkako indarkeriaren eta indarkeria horren kontrako borrokaren testuingurua?

Ekuadorren, betidanik nahikoa aurrerapauso eman dira legegintzaren arloan. 1994an, 103. Legea izan genuen, Emakume eta Familiarenganako Indarkeriaren aurkako Legea, alegia. Emakumeok borrokatu egin ginen, batez ere emakumeen-ganako indarkeriaren aurkako legea izan zedin. Hala ere, 1994ko legegintza-tes-tuinguruan, kuoten legea ere ez zen ezartzen. Eragin-botere gutxiago geneuka-nez, aurrerapauso handia izan zen lege hori onartzea, nahi genuen guztia izan ez arren. Orain, ostera, indarkeria guztia familia-arlokoa omen denez, ez da osasun publikoko arazotzat hartzen, arazo penaltzat hartzen. Gaur arte, hain zuzen ere, etxeko edo esparru pribatuko delitu txiki moduan tipifikatuta dagoenez, legeria berezia da erabat. Hasiera batean, lege hori indarrean sartu zenean, zenbait berme egon ziren; esate baterako, emakumeen komisariak ezarri ziren komisaria espezia-lizatu moduan, behar besteko aurrekontua zeukaten eta emakumeenganako indar-keriaren arloko langile adituek lan egiten zuten bertan... Gero, ordea, legearen eta gizartearen arloan, berriro ere etxeko delitu txikitat hartu zenez, eskagarritasun-baldintzak mugatu egin ziren. Familia barruko indarkeriatzat hartzen denez, oso gutxitan auziperatu eta zigortu daitezke erasotzaileak.

Urte luzeko borroka izan da, lege hori 1994an sartu zelako indarrean. Komisariak epaitegi bihurtzea da asmoa, legeria zehatza egotea eta ez berezia. Familia-harre-mana astungarria izatea da gure proposamena eta indarkeria familia barruko girora ez mugatzeko, indarkeria kaleetan bizi dugulako, indarkeria politikoa, laneko in-darkeria. Gure Zigor Kodean, jazarpen sexualaren delitua agertzen da lanaren zein hezkuntzaren arloan, esaterako. Hala ere, ez dago gai horietarako prozedura zeha-tzik, eta, prozedura egokirik ez dagoenez, horretarako langilerik ere ez dago. Izan ere, horrelako delitu gutxi zigortzen dira. Azterlan baten arabera, delitu sexualen %5 baino ez dira salatzen, eta, bertan, epaien %1en baino ez dute zigorra ezartzen. Horrez gain, emakumeenganako indarkeriaren inguruko irudi sinbolikoen gaia ere landu behar dugu. Oraindik, bide luzea dugu aurretik.

#### Indarkeriaren zer kontzeptu erabiltzen duzue?

Emakumeen aurkako indarkeria gorroto-delitu berezia da, genero-indarkeria delako eta ez delako emakume bakar baten aurkakoa, emetasunaren kontrakoa baizik. Hain zuzen ere, kontzepzio patriarkalaren barruan dago, eta, oinarritzko adierazpidea den eraso fisiko edo sexuala ez ezik, menderakuntza-sistema oso hau ere bada emakumeen aurkako indarkeria. Horren ondorioz, emakumeok hezkuntza ez da behar bestekoa, eskubideak eta aukerak kentzen dizkigute, osasun gutxiago dugu, sistema bortitzean bizi gara...

Indarkeria sinboliko hori erabateko pentsaera-eskemaren adierazgarri de-nez, naturalizatu egiten da, eta, emakumeon ustez ere, gizonen azpitik gaude gaitasunei, jakintzei eta eskubideei dagokienez. Sistema patriarkalak sortutako kontzepzioa da, eta, sistema kapitalistatik ezinbestean sortzen ez bada ere, sis-tema kapitalista horrek sendotu egiten du. Sistema kapitalistaren aliatu onena patriarkatua da; eta patriarkatuarena, kapitalismoa. Gerra guztiak, esaterako. Gure iritziz, gerra eta genero-indarkeria gauza bera dira, baita merkataritza askerako itunak eta genero-indarkeria ere. Zentzu guztietan zapaltzailea den sistemak indarkeria bera larriagotzen du. Guk geuk dugun kontzepzio orokorra da. Beraz, ez da hezi gabeko mutil gaiztoaren gai partikularra. Indarkeria bera ez da jarrera partikularren ondorioa.

**Legegintzako aurrerakuntzei dagokienez, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko legeetarako esparru egokia duzuela aipatu duzu. Dena dela, zergatik ez da feminizioari buruzko legerik egin?**

Ekuador ez da Erdialdeko Amerika. Gerra orokorreko prozesurik bizi izan ez dugunez, ez dugu indarkeria sistematiko horretan, hilketetan edo estatuak behin eta berriro sustatutako krimen ankerretan pentsatzen. Era berean, ez dugu terrorismoko arazo zehatzik eduki. Hori dela eta, etxeko indarkeriaren edo delinkuentzia arruntaren ikuspegia kontuan hartu du estatuak.

Zigor Kodean, gorroto-krimenak agertzen badira ere, agintariak ez dute gizonen eta emakumeen artean bereizten. Euren ustez, delinkuentzia arruntarekin dago lotuta, eta gizonen zein emakumeen hilketak parekoak dira. Ora-indik ere, agintariak ez dira konturatu legeak egin behar direla eta emakume izateagatik emakumeek jasandako indarkeria dela. Aurrerapauso handia izan da gai hori konstituzioan bertan zehaztu izana, baina ez da nahikoa, gorroto-krimenek generoa, alderdi kulturala... kontuan hartzen ez dituztelako.

**Ez dakit Ekuadorren feminizio/feminizidioari buruzko eztabaidarik egin duzuen. Bi kontzeptuetatik, zein erabiltzen duzue?**

Oro har, sinonimotzat hartzen dira, baina, egia esan, ez da horri buruzko eztabaidarik egin, ezta akademian bertan ere. Garapenerako lankidetzaren arloan, feminizidioa erabili ohi da. Edonola ere, ez dugu uste eztabaida hori garrantzitsua denik.

**Nolako ekintza-estrategiak proposatzen dituzu zigorgabetasunaren aurkako borrokan eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako borrokan?**

Zenbait estrategia, esparru juridiko egokia eta esparru konstituzional egokia ez ezik, esparru instituzional egokia ere badugu zenbait lekutan. Gobernuak badu barne-kontraesanik, eta gauzak geratu dira bidean. Gure lorpenak gobernuan bertan ditugun emakume kideei edo aliatuei edo genero-agendako jendeari zor dizkiegu, eta asko da.

Emakumeen eskubideen aldeko talde parlamentarioa 20tik gora biltzarkidek osatzen dute. Biltzarkide horiek gizonak eta emakumeak direnez, oso ondo dago. Gehienak Herrialdeko Aliantzako kideak dira (gobernuan dagoen alderdikoak), eta, askotan, presidentearen aurka ere egon dira, agenda hau aurrera ateratzeko. Horri esker, aurrerapauso handiak eman dira legegintzan.

Inoiz ez bezala, etengabe ari gara harremanetan, lehenengo aldiz gizonak eta emakumezko aliatuak ditugulako. Azkenean, gizonak eta emakumeak ditugu erabakitze gaitasuna dagoen lekuetan. Bestetik, etengabe mobilizatzen gara. Konstituzioa onartzekotan zegoenean, etengabeko presioa egin genien presidenteari eta bere kabinete guztiari, geure eskarien bitartez. Une hartan, Konstituzioa onartu ostean, jarduerak behera egin zuen, eta emakumeen erakundeak aldendu egin ziren. Gobernuak asko eta asko kooptatu zituen, apur bat desmobilizatu ginen. Nolanahi ere, aldarrikapenen agenda horri ekingo diogu berriro, eta oso ondo dago berriro elkartzea eta kontzeptualizatzea. Honako feminismo apolitiko honetatik kanpo gaude: “nik Margaret Thatcherrek bezalako agenda daukat, emakumea delako”. Ezin da feminismotzat hartu, emakume horiek herrialdeak inbaditzen dituen sistemaren alde daudenean.

Ez dago emakumeen errealitatea sektorizatzerik, emakumeok gizartean bertan gaudelako txertatuta. Horra hor plataformaren alde ona, eztabaida politikoagoa delako, emakumeok gudanako indarkeriaz bakarrik hitz egiten ez dugulako, eskubide sexualez eta ugalketa-eskubideez bakarrik hitz egiten ez dugulako... Politika orokorrak hitz egiten dugu, gorputza esparru politikoa delako, ekonomiaz ere hitz egiten dugu... Horixe bera da gure agendaren estrategia: behin eta berriro kontzeptualizatzea eta kontzeptualizatzea. Sarritan eztabaidatzen dugu, eratzen ari gara beti.

Logika beraren barruan, sareetan, nazioarteko sareetan eta era guztietako sareetan gaude sartuta. Esate baterako, merkataritza aserako itunen aurkako “Ekuadorren erabakia” plataformako kideak gara. Gai horietan guztietan, aha-lerin handia egiten dugu, generoaren begirada eta genero-errealitate anitzak kontuan hartu ditzaten. Era berean, honako hauexetako kideak ere bagara: nazioarteko aliantzak, eskualdeko aliantzak, aliantza kontinentalak, emakumeen lantaldea... Sareak egitea da funtsezkoena, bakarrik joanez gero, jan egiten gaituztelako.

### Zer da SISMA Emakumea? Nola sortu zen?

Sisma Emakumea Korporazioa gobernuz kanpoko erakunde feminista da, eta Kolonbiako emakumeen giza eskubideak defendatzeko, sustatzeko eta babesteko lan egiten du. Korporazioa 5 emakume feministaren borondate bateratuari esker sortu zen, feminismoan aurrera egiteko eta herritartasuna herrialdeko emakumeengana iristeko. Bere asmoak betetzeko, nazio-mailako eta nazioarteko eragindun ekintzak, ikerketa eta prestakuntza garatzen ditu. Bere jardueren esparruan, lege, psikologia eta gizarte arloko aholkularitza, laguntza eta ordezkartza eskaintzen dizkie indarkeriako emakume biktimei, baina, batez ere, indarkeria sexualeko emakume biktimei, familian edo erki-degoan bertan edo eragile armatuen eskutik jasan duten kontuan hartu gabe.

### Nola azaldu eta kontzeptualizatzen duzue emakumeen aurkako indarkeria?

Sisma Emakumea korporazioarentzat, emakume izateagatik emakumeek jasaten dituzten indarkeriek euren giza eskubideak urratzen dituzte. Alde horretatik, estatuak honako arlo hauekin lotutako betebeharrak ditu: prebentzioa, ikerketa, zehapena, kalte-ordaina eta halakorik berriro gertatuko ez den bermea. Sisma Emakumea korporazioak “emakumeen aurkako indarkeriak emakume izateagatik” terminoa erabiltzen duenez, adieran bertan argi eta garbi azaltzen da zer uste dugun:

- a. Emakumeen aurkako indarkeria ez da bakarra, zenbait adierazpide dituelako, eta, euren artean, fisikoa, psikologikoa, sexuala eta ondare-arlokoa edo ekonomikoa nabarmendu behar dira, Emakumeen aurkako Ez Indarkeriei buruzko 2008ko 1257. Legean kontzeptualizatu ziren bezala. Lege hori, hain zuzen ere, Emakumeen Bankadak aldarrikatu zuen, Kolonbiako emakumeen erakundeen koordinaziopean.
- b. Ez da edonolako indarkeria, euren kontrako bereizkeria iraunkorragatik emakumeen aurka garatutakoa delako. 2008ko 1257. Legean bertan, honako azalpen hau agertzen da, eta bat dator Belém do Paráko Konbentzioan aurreikusitakoarekin: emakume izateagatik emakumei heriotza, kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala, psikologikoa, ekonomikoa edo ondare-arlokoa eragiten dien edozein ekintza edo hutsegite izango da emakumeen aurkako indarkeria, baita egitate horien mehatxuak, hertsapena edo askatasun-gabealdi arbitrarioa ere, esparru publikoan edo pribatuan gertatzen den kontuan hartu gabe.

### Zergatik hitz egiten duzue emakumeen aurkako indarkeriaren zigorgabetasunaz? Zuon ustez, zer eragile sozial dira indarkeria horri eusteko konplizeak?

Zigorgabetasuna agerikoa da, emakumeen giza eskubideen urraketa hori ez delako behar bezala prebenitzen, ikertzen eta zigortzen. Batetik, emakumeen aurkako indarkeria-egitateen azpierregero ikaragarria da zenbait faktoreen ondorioz: egitate horien naturalizazio soziala egotea, zigorgabetasunaren ondorioz emakumeek justizia-administrazioa ez jotzeko erabakia hartzea, biktimen aurkako estigma soziala iraunkorra izatea eta salatzen ausartzen diren emakumeak babesteko mekanismorik ez egotea.

Zenbakien arabera, oso emakume gutxi jotzen dute herrialdean legezko irizpen medikoak egiten dituen Kolonbiako Lege Medikuntzako eta Auzitegi Zientzietako Institutura, salaketa aurkezteko asmoz. Hona hemen 2010. urterako datuak:

2010eko urtarriletik abendura, emakumeen aurkako familia barruko 69.713 indarkeria-kasu eman ziren Kolonbian. Bestela esanda, familia barruko indarkeriako 5.809 emakume biktima egon ziren hilean, hau da, 193 egunean edo, gutxienez, 8 orduoro. Bikotekidearen tratu txarrei dagokienez, epealdi berean 51.182 emakumek bikotekidearen tratu txarretako 4.265 emakume biktima egon ziren hilean, hau da, 142 egunean edo, gutxienez, 6 orduoro. Feminizidioei dagokienez, 128 emakume hil zituzten emakume izateagatik. Beste modu batera esanda, generoarekin zerikusia duten arrazoiengatik emakume bat hil zuten hiru egunean behin. Epealdi berean, emakumeen aurkako indarkeria sexualeko 16.916 kasu egon ziren Kolonbian. Bestela esanda, indarkeria sexualeko 1.409 emakume biktima egon ziren hilean, hau da, 46 egunean edo, gutxienez, 2 orduoro.

Gertakizun-indize handi horien aurrean, auziperatutako kasuen kopurua oso-oso urria da. Bestetik, justizia-administrazioak informazioa behar bezala sistematizatzen ez duenez, adibidez ezinezkoa da zehaztea aurkeztutako salaketetatik zenbatetan ematen den epaia eta zenbatetan ezartzen den zigorra.

### Kolonbian, nola nahasten dira gatazka politikoa eta emakumeen aurkako indarkeria?

Sisma Emakumea korporazioak egoera horri buruz daukan ikuspegiaren arabera, emakumeen aurkako indarkeria etengabea da euren bizitzan, eta egoera gatazkatsuetan zein ez-gatazkatsuetan azaltzen da. Herrialdeko gatazka armatuari dagokionez, adierazi egin daiteke emakumeak gatazka armatuko biktima neurrigabeak direla eta gatazkek berak berregin eta sakondu egiten dituela emakumeek historiari begira emakume izateagatik jasan dituzten bereizkeriak eta indarkeriak. Modu berean, bizimodu zibila militarizatu egin denez, emakumeak ahulagoak dira, eta emakume izateagatik indarkeriako biktimak izateko aukera gehiago dituzte.

Emakumeak bizirik iraun dutenen %85 dira, gutxi gorabehera; egia, justizia eta kalte-ordaina eskatzen dituzten biktimen %70; eta, euren seme-alabekin batera, lekualdatutako biztanleen %80. Bestetik, gatazka armatuaren esparruan modu sistematiko eta orokortuan garatutako indarkeria sexualeko biktima neurrigabeak dira emakumeak.

Herriaren Defentsariaren esanetan, 2008an eraso sexuala jasan zutenen %17,7k (emakumeak edo euren familiak) argi eta garbi adierazi zuten horrexegatik lekualdatu zirela. Lekualdatutako Emakumeen aurkako Indarkeriei buruzko 092. Autoaren jarraipena egiteko txostenaren arabera (“Kolonbiako Emakumeen Giza Eskubideen Behatokia: gatazka armatuetan, emakumeek ere badute eskubiderik” eta lekualdatutako en erakunde nazionalak), lekualdatutako emakumeen %40k adierazi egin zuten lekualdaketa ondoren eurak zuzenean edo euren familia-taldeko emakume kideren bat indarkeriako sexualeko biktimak izan zela.

Giza eskubideen emakume defendatzaileen egoerari dagokionez, 2010eko abenduaren 20an Giza Eskubideen Defendatzaileen Egoerari buruzko errelatore bereziak, Margaret Sekaggya andreak, bere hirugarren txostena aurkeztu zion Giza Eskubideen Kontseiluari. Bertan aipatzen duenez, mehatxuei buruzko jakinarazpen gehienak, 2004tik 2009ra bidalitako heriotza-mehatxuak kontuan hartuta, Kolonbiatik jaso zituzten. Era berean, bere esanetan, emakumeen es-

kubideak edo genero-arloko gaiak sustatzen dituzten emakume defendatzaile eta ekintzaileen aurkako heriotza-saialdiei buruzko jakinarazpen gehienak Kolonbiatik bertatik jaso zituzten. Gainera, barruko gatazka armatuetan abusuak salatu dituzten emakumeen kasu gehien dituen herrialdea ere bada Kolonia. Bestetik, bigarren herrialdea da, emakume abokatuek, epaileek eta kazetariak, komunikabideetako emakume profesionalak eta justizia eskatzen zuten emakume defendatzaileek jasandako arriskuei buruzko jakinarazpenei dagokienez. Horrez gain, 2010ean baino ez, CIDHK kautelazko neurriak hartu behar izan ditu lekualdatutako biztanleen 18 emakume liderrentzat gutxienez, baita euren eskubideak defendatzen dituzten emakumeen bi erakunderentzat ere.

### Zein dira Sisma Emakumea korporazioaren jarduketak-estrategiak?

Erakundearen lana honako lerro estrategiko hauetan dago oinarrituta: Emakumeen eskubideak eskatzeko eragina edukitzea eta indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea aldarrikatzea.

- *Justizia* eskatzeko, emakumeek indarkeriarik gabe eta, batez ere, familiako, erkidegoko eta gatazka armatuko indarkeria sexuala barik bizitzeko daukaten eskubidea urratzeagatik.
- Emakumeen *jabekuntza* bultzatzea, politikan zein erkidegoan parte hartu dezaten. Era berean, indarkerietako emakume biktimei lehentasuna ematea eta, euren artean, nahitaez lekualdatu diren emakumeei laguntzea, egiarako, justiziarako, kalte-ordainerako eta halakorik berriro gertatuko ez den bermerako eskubideak lortzeko aukera izan dezaten.
- *Ikerketak* egitea, euren giza eskubideak erabiltzean emakumeek gaintu behar dituzten oztopoak ezagutzeko eta ulertzeko. Horrez gain, egiarako, justiziarako, kalte-ordainerako eta halakorik berriro gertatuko ez den bermerako eskubideei lehentasuna ematea.



## Sexu eta Etxeko Bortizkeriaren Aurkako Txileko Sarea

### Zer da etxeko eta sexu-arloko indarkeriaren aurkako sare txiletarra? Nola sortu zen?

Gaur egun, herrialde zabaleko emakumeen 300 inguru erakunde dira Sare Txiletarreko kideak. 1990. urtean sortu zen, demokraziara itzultzean eta diktaduran bertan 80ko hamarkadako mobilizazioak bultzatzean. Orduan, feministok genero-indarkeria identifikatzen eta politizatzen hasi ginen, emakumeak kontrolatzeko eta menderatzeko beste modu bat zelako.

### Zer kontzeptu erabiltzen duzue emakumeenganako indarkeriaren arloan? Nola azaltzen duzue zuok?

Sare Txiletarrarentzat, emakumeenganako indarkeria egiturazko fenomeno da, eta bizitza osoan zehar eta arlo guztietan ematen da, patriarkatuak emakumeen gorputzen eta bizien gainean daukan kontrolaren adierazgarri.

Honako bi arrazoi nagusi hauengatik hitz egiten dugu emakumeenganako indarkeriaz: batetik, Familia Barruko Indarkeriari buruzko Legeak (VIF) familiako indarkeriaren norabidea ezkutatu zuen (VIFgatiko salaketagileen %90 emakumeak dira); eta, bestetik, “aurka” esatean, biktima pasiboen irudia indartzen zela konturatu ginen.

### Zure agerraldian azaldu zenuenez, oso garrantzitsua da emakumeen erresistentzia onestea, berriro ere biktima ez bihurtzea. Zergatik da hain garrantzitsua emakumeek indarkeriaren aurka dauzkaten estrategiak nabarmentzea?

Erresistentziak ez du esan nahi erasoak jasan eta biziraun behar dutenik, erasoei erantzun egin behar dietela baizik. Alde horretatik, bi lerro ezarri ditugu: batetik, arlo pertsonalean ematen diren erasoak agerian jartzea: tolerantziarik eza, salaketak, utzikeria eta norberaren defentsarako parrizidioa bera, esaterako; baita arlo kolektibokoak ere: emakumeak etxe partikularre-

tan edo harrera-proiektu ezegonkorretan edukitzea eta babestea, erakundeak eta taldeak sustatzea eta emakumeen gaitasunak zein ahalmenak berrestea. Bestetik, geure lengoaia bera oso kontuan hartzea eta gure helburuekin bat ez datorrenari beste izen bat jartzea. Horiek horrela, *emakumeen* aurkako indarkeria bereizgabe bezain homogeneous, etnien, gizarte-mailen, orientazio sexualen, etorkinen, belaunaldien eta *emakumeen* aniztasunaren onspenera iritsi ginen. Izan ere, emakumeok beste era batera sumatzen dugu edonolako indarkeria. Hori dela eta, emakumeen *aurkako* indarkeria alde batera utzi genuen, biktimak nabarmendu eta areagotu egiten dituelako, eta emakumeenganako indarkeria erabiltzen hasi ginen, familia barruko indarkeriak ezkutatzen duen norabidea nabarmentzen duelako.

### Zer lan-estrategia duzue emakumeenganako indarkeriaren aurka? Nolako sentsibilizazioa eta mobilizazioa proposatzen duzue?

Gure estrategia emakumeen gaitasunak berrestea da, eta, horretarako, presuntakuntza politikoa zein erakundeak sustatzen ditugu, herrialdeko zenbait eskualdetako taldeen esperientziak trukatu eta atzeraelikatu egiten ditugu, jakintzak ekoitzi eta zabaldu egiten ditugu eta “Kontuz, matxismoak hil egiten du-eta!” kanpaina egiten dugu.

Ez dugu “sentsibilizazioa” hitza erabiltzen, batez ere, beste emakume batzuekin jartzen dugulako agerian gure bizitzan nola edo hala ematen den indarkeria. Gainera, batzuetan hain naturalizatuta dagoenez, antzeman ere ez dugu egiten. Familian, kalean eta instituzioetan bertan, emakumeok hitzezko erasoak, eraso fisikoak eta psikologikoak antzematen ditugunean, mobilizatu egiten gara. Batzuetan, femizidioaren aurka egiten dugu, apaizen abusu sexualak ezkututzen dituen eliza katolikoaren aurka, presidentearen txiste sexisten aurka eta gainerako indarkeria-egoeren aurka. Beste batzuetan, ordea, beste era bateko mugimendu sozialekin bat egiten dugu, ikasleekin, batez ere, egiturazkoagoak diren eraldaketen alde mobilizatzeko eta geure asmoak uztartzeko.

Sarea izanda, zuontzat zer neurritan da garrantzitsua beste mugimendu sozial batzuekin sarean lan egitea? Eta Amerika Latinoko eta Europako beste sare batzuekin? Alde horretatik, baduzue lan-aliantzarik?

Gaur egun, hausnarketarako eta atzeraelikadurarako guneak sortzen ari gara beste mugimendu sozial batzuetako emakume kideekin, bertan gero eta emakume lider gehiago daudela kontuan hartuta. Bide hasi berria da, baina nabarmendu egin behar da mugimendu horietako emakume buruzagiak ez direla mugimendu feministako kide sentitzen, euren mugimenduko feministak baizik. Seguruenik, hurrengo elkarrizketetan, galdera eta zalantza berriak sortuko dira, eta, beharbada, egituratzeko beste modu batzuk sortuko dira horren ondorioz.

Sare Txiletarra Amerika Latinoko eta Karibeko Emakumeenganako Indarkeriarik gabeko Bizitzaren aldeko Sare Feministako kidea da, baita Amerika Latinoko eta Karibeko Emakumeen Osasun Sarekoa ere (RMSLAC). Horrez gain, honako hauexetako kidea ere bada nazio-mailan: Osasun, Eskubide Sexual eta Ugalketa Eskubideen Sareko Foroa; Erabakitze Eskubidearen aldeko Egituraketa Feminista; eta Martxoak 8 Lantaldea. Horiekin guztiarekin informazioa trukatzeko dugu, eta, era berean, lan-aliantzak ere baditugu RMSLACekin eta sare nazionalekin.



TRANSNAZIONALAK ETA  
GATAZKA: NOLA ERANTZUN KRISI  
TESTUINGURUAN

2



# aurkibidea



3

- Giza Eskubideak badira transnazionalak: lurraldea ez dago salgai, multinazionalerako ikuspuntu kritiko bat

4

- Patricia Tobóni eta Dora Sepúlvedari egindako elkarrizketa (OREWA)<sup>1</sup>

5

- Abraham Riverari egindako elkarrizketa (Caik-Kolektiboa)<sup>2</sup>

<sup>1</sup>[www.orewa.org](http://www.orewa.org) <sup>2</sup> [www.colectivo-caik.org/wb/](http://www.colectivo-caik.org/wb/)





**E**konomia, eta funtsean kapitalen liberalizazioa da kapitalismo neoliberalen nortasunaren ezaugarrietako bat pertsonen, mugimendu askatasuna ekiditen duten mugen areagotzearen aurrean, finantza kapitalen zirkulaziorako askatasun osoa eta enpresen mugikortasuna erreztzen dela da.

Askatasun guztiarekin, gobernuen konplizitate eta pasibitatearekin, enpresa transnasionalek beraien ekoizpena deslokalizatu egiten dute “konparaziozko abantailen” bila, Giza Eskubideak alde batera utziz. Kostu murrizpen hau, ekoizpena lekualdatzean gauzatzen da, lan legedi ahul bat daukaten herrialdetara eramaten da, non langileen esplotazioa ahalbidetzen den: huseria diren soldatak, ordutegi esklabistak, etab. Baina deslokalizazioa, ez dute bakarrik lan legedi permisiboek eragiten baizik eta ingurugiro, biodibertsitate eta aberastasun naturalak dituzten lurraldeetan bizi diren komunitateei errespetua ezak ere bai. Botere ekonomiko-finantziero eta enpresa transnazional handien arteko aliantzak, Giza Eskubideak urratzen dituzten praktikak geldiarazteko dagoen borondate politiko falta azaltzen du.

Testuinguru honetan enpresa transnazional handiak, hegoaldeko herrialdeetan ipintzen dira eta komunitateen lurraldeak eskuratzen dituzte non azpiegitura erraldoiak eraikitzen dituzten. Enpresa transnazional handien eskutik ematen diren pribatizazio eta lurralde eskuratze hauek, beren aberastasuna gaitik lurralde estrategikoak direnetan ematen dira, bereziki lehengai eta biodibertsitatean aberatsak direnak. Sarritan, historikoki herri indigenengaitik eta nekazari erkidegoengaitik bizi izandako lurraldeak dira.

## Giza Eskubideak badira transnazionalak: lurraldea ez dago salgai, multinazionalerako ikuspuntu kritiko bat

Askotan, proiektu erraldoi hauen burutzea, prozedura ilun eta demokratikoki zalantzarrietan ematen da, edo zuzenean kaltetuako komunitateei galde egin gabe. Ohizkoa da proiektu hauek, energetikoak (ur biltegiak), mehatzaritzazkoak edota turistikoak izatea. Ohizkoak dira baita ere, komunitateetako liderren aurkako, larderia eta bortizkeriaren erabilpena hauek egunero mehatxu eta zirikei aurre egin behar diete. Era honetan, bertako biztanleei lurra eta bere ekoizpen baliabideei sarbidea eta kontrol eskubidea ukatzen zaie.

Proiektu erraldoi hauen eraginak izugarritzkoak dira: biztanleen lekualdatzeak, basoen eta lurren suntsipena, uraren kuxadura etab. Eragindako kalteak lurraren biosferatik ekiditen dute. Hau da, ingurugiroaren suntsipen bortitza supostazen dute hor bizi diren erkidegoentzat, bereziki emakumeentzat. Honek, ordea, ez dirudi enpreseei axola zaienik, hondamendi ekologikoan eta giza ondoringan baino mozkin ekonomikoetan kezkatuago daudenean. Bestalde mozkin ekonomikoak nazioarteko enpresa eliteen diru-kuxak handiagotzera doaz, herrien eskubideen kalterako, desberdintasunak areagotuz. Giza Eskubideen aldean transnazionalen irabazi ekonomikoak lehenesten dituen sistema honen aurrean, non dago herrien burujabetza beraien balibideen inguruan?

Mundubatetik, herrialde ezberdinetan, transnazionalen arpiltzeari aurre egiten dioten erakunde eta gizarte mugineduak babesten ditugu, nekazari eta erakunde indigenak zeintzuek giza eta ingurugiroaren iraunkortasunaren aldeko apustua egiten duten. Komunitate hauek eusten diote eta alternatibak proposatzen dituzte garapen eredu ezberdin baten alde, bizitzaren erdigunetik, kosta ala kosta irabazi ekonomikoak ateratzeari garrantzia kenduz eta bere ordez Giza Eskubideekiko errespetua jarriz.

### Zer testuinguru orokorretan bizi zarete zuok eta erkidegoak?

Gaur egun, oso testuinguru zailean bizi gara herri indigenok. Multinazionalen arteko aliantza dugu aurrean, eta, gaur egun, gure lurraldeetara iristen ari dira, gure bizilekuko aberastasuna ateratzeko (urrea, egurra...). Aliantza horren ondorioz, arazo eta zailtasun asko sortzen ari dira. Agintariak eta erkidegoak lehian ari dira, multinazionalak gure lurraldean sartu ez daitezten. Izan ere, jakin badakigu horrela gure kultura zein bizia sarraskituko dituztela. Bestetik, estatuko politikak gure arteko gatazkak sortzea du helburu nagusi. Horixe bera da erabiltzen ari diren beste estrategia bat: erkidegoen arteko norgehiagokak sortzea eta gure talde indigenak ahultzea. Hartara, gure lurraldeetara iristeko aukera gehiago dauzkate. Estatuak ahuldu egin nahi gaitu, meatzaritzako eta beste arlo batzuetako proiektu handien aurkako jarrera desagiteko. Horren aurrean, gainera, legez kanpoko taldeak ere badaude, eta, lurraldea okupatu nahi dutenez, erkidegoak ikaratzten dituzte.

Guk, indigenok, argi eta garbi daukagu zein den Kolonbiako gobernuaren ikuspegia herri indigenei dagokienez.

Konstituzioak guztiok eskubideak ditugula dio. Legeek babestu egiten gaituzte. Era berean, galdetu egin behar digutela ere adierazten dute legeek, baina idatzita baino ez dago, ez delako halakorik betetzen. Estatuak ez du halakorik errespetatzen. Argi eta garbi daukagu gaur egungo testuinguruan estatuari aurre egiteko prestatzen jarraitu behar dugula eta behar den moduko politika ezarri behar dugula, estatuak nazioko lurraldea bertako bizilagunentzat dela ulertu dezan eta ez bertako biztanleen kalterako inolako neurririk gabe ustiatzeko.

**Testuinguru orokorragoan, nolako aurreikuspenak ireki edo ixten dira edo nola ikusten duzue gobernu-aldaketa? Aldaketak txarrerako ala onerako izango dira edo gauza bera gertatuko ote da?**

Ez dut uste Santosen politika desberdina izango denik, ia-ia politika guztiak berdinak direlako. Bere esanetan, indigenen eskaerak larregizkoak dira, legebiltzarrean, esparru publikoan parte hartu nahi dugulako.

Egia da Santosen diskurtsoa aldatu egin dela. Santosek gerra dagoela onartu du, Uribek bere garaian utzitako irudia aldatzeko. Dena dela, nire ustez, horren atzean, gauzak hobeto edo txarrago egin arren, herri indigenekin nola lan egingo duten ikusi beharra dago. Aldaketarik egon badagoela sinesteko, gobernuak benetan errespetatu beharko ditu gure eskubideak, herri moduan errespetatu beharko gaitu eta gure eskaera guztiak onartu beharko ditu. Hau da, baietz esango dugu, gobernuak indigenen egoera entzun edo aztertu egin duenean, baina hori gertatzen ez den bitartean... Nire iritziz, aurreko gobernu bat ere ez da eraginkorra izan Kolonbiako erkidego indigenekin.

Gobernuak gatazka osoa sortu du, eta gu Kolonbiako gobernuak eraturako gatazkako biktimak izan gara. Oro har, horixe bera izan da eragin handiena. Itxaron egin beharra dago, Kolonbiako herrieekin eta erakundeekin nola lan egiten duen ikusi arte.

### ¿Algo que añadir?

Azkenik, Euskadira foro honetara etorri nintzenean, ulertu egin nuen Kolonbiako arazoa beste herrialde batzuetan ere ematen dela; Saharan bertan, esaterako. Herri horretan ere, gobernuak eskubideak urratzen ditu. Estatu edo gobernari guztiak ia-ia politika berberak dituztela ohartu naiz. Niretzat, oso deigarria izan da neska-mutilak beste familia batzuekin egoteko Opor Baketsuak programa dagoela jakitea. Niretzat, oso gogorra da hori ulertzea. Hemen, gauza asko ikasi ditut, eta Mundubat-i eman nahi dizkiot eskerrak, gonbidatu egin gintuelako. Amaitzeko, Eusko Jaurlaritzari eskatu nahi diote babesten jarraitzeko. Badakigu ez dela erraza Eusko Jaurlaritzak guri laguntzea, premia handiak dituzten beste herrialde batzuk ere badaudenean. Dena dela, Euskaditik datorren baliabide txiki horri esker, urteotan gauza asko egin ditugu Chocon Mundubat-en laguntzaz



## Abraham Riverari (CAIK-Kolektiboa) elkarrizketa

### Abraham Rivera (CAIK-Kolektiboa)

Chiapas 1994ko urtarrilaren 1ean egin zen ezagun munduan, Merkataritza Askerako Ituna (MAI) indarrean sartu zenean eta zapatistak matxinatu zirenean. Mesedez, gainetik azaldu nolako eragina izan duten MAIk, multinazionalen ezarpenak...

Egia esan, luzaroan Chiapasko estatuaren ezaugarriak oso bereziak izan dira Mesoamerikan. Esate baterako, Mexiko Espainiatik independizatu zenean, horren berri izan zuten azken estatuetakoa izan zen. Mexikoko Iraultza hasi zenean ere, azkenetakoa izan zen, iraultza ez zelako bertara iritsi.

1994. urtean gertatutakoari dagokionez, matxinadak ez zuen lotune zuzenik eduki 1994ko Merkataritza Askerako Itunaren sinadurarekin. Dena dela, oso sinbolikoa ere bada, aldi berean gertatu zelako. 1992an, Konstituzioko 27. artikulua eraldatzean lurra pribatizatzen hasi zirenean, ondorio larriak sortu ziren Chiapasen.

Sorkuntza-prozesua 1992ko 500 urteetako martxan gauzatu zen, Emiliano Zapata Aliantza Nazionalaren eskutik. Erakunde hori, hain zuzen ere, gaur egungo mugimendu zapatistaren oinarria dela esan daiteke. Martxa horrek modu sinbolikoan setiatu zuen San Cristobal de Las Casas. Horrela, bada, Mexikon ezartzen ari zen neoliberalismoko logikari aurre egin zion, eta, halako batean, betiko "ahaztuak" irten ziren: "kabroiak, hortxe daude indioak, eta berriro matxinatu dira". Oso-oso garrantzitsua izan zen, eta aspaldidanik ezkutuan eta ahaztuta zegoen arazoa jarri zuen agerian. Argi eta garbi dago harri-koxkorra izan zela Mexiko garapen-prozesuan sartzeko kanpaina osoan.

Gaur egun, zein dira enpresa handi horiek eta zer baliabide us-tiatzen ari dira Chiapasko lurzoruan?

Chiapas lurralde estrategikoa da. Mesoamerikarako atea da, baita biodibertsitateko baliabideak kontrolatzeko atea ere. Funtsean, honako baliabide hauek ditugu hizpide: mineralak, urrea, zilarra, zinka, kobrea, erreserba naturalak, biodibertsitatea, ura eta energiaren sorkuntza. Oro har, honako arlo hauek dira enpresa horien xede nagusiak: telekomunikazioetako azpiegiturak, azpiegitura energetikoak, turismoa eta meatzaritza.

Nolako kalteak eragin dituzte zuon ingurumenean eta gizartean?

Jarduera bakoitzak bere eraginak sorrarazten ditu. Meatzaritzak ingurumenean eragindako kalteak itzulezinak dira gainazalean zein barrualdean. Meatzaritzak luraren gainazaleko eta barruko mantuak suntsitzen ditu, eta, horrez gain, mantu akuifero guztiak ere kutsatzen ditu.

Energia elektrikoaren sorkuntzarako presak eraikitzen dituztenean, oso-oso ondorio larriak sortzen dira ingurumenean, gainazal handiak urez betetzen direlako eta, horren ondorioz, landare-geruza osoa usteltzen delako.

Bestetik, komunikazioetako azpiegituren eraikuntzaren ondorioz (errepideak...), basoen eta oihanen hondamendia itzela da, eta gizarte-arloko eraginak ere badira nabariak.

Esate baterako, erkidegoen bizimodua urratzen eta eraldatzen ari dira zuzenean, jendea bere bizimoduarekin zerikusirik ez duten mendebaldeko kontsumo-ereduetara egokitu dadin.



## Abraham Riverari (CAIK-Kolektiboa) elkarrizketa

Egoera hori kontuan hartuta, inolako galdeketa egin dute erkidegoek? Nolako esperientziak garatu dituzte?

Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako beste mugimendu batzuen aldean, Chiapasen ez dute uste proiektuak geldiarazteko eskatzea konponbidea denik. Orain, ez dute gora jotzen, eta ez daude goitik emandako konponbide horren zain. Beti zebiltzan eskean, eta, azkenean, aspertu egin ziren, ezer ez lortzean.

Orain, ordea, Chiapasen behetik sortzen dituzte prozesuak, euren lurraldea kontrolatzeko, euren lurraldea defendatzeko eta erresistentzia-prozesuetan bertan euren lurraldearen gaineko kontrol juridikozionala edukitzeko. Beraz, orain ez diote estatuari eskatu behar enpresak botatzeko. Izan ere, euren lurraldearen gaineko kontrola dutenez, ez diete enpresei sartzen uzten. Horixe bera da Chiapasko egoeraren ezaugarri interesgarriena. Hain zuzen ere, Lacandona Oihaneko Seigarren Adierazpena kaleratzean eta "beste kanpainan" oinarritutako erresistentzia-guneak egituratzean, determinazio askeko eremu autonomoak eratzen ari dira jatorrizko herrien lurraldeetan.

### Amaitzeko, besterik esan nahi zenuke?

Lurralde honetan oso interesgarria lurraldeaz jabetzeko bi eredu antagoiniko daudela ikustea. Batetik, planeta osoan oro har indarkeriaz ezartzen ari den eredu dugu. Bere setio mediatikoa oso ahaltsua da, kontzeptu guztiak xurgatzen ditu: giza eskubideak, giza garapena... Hori dela eta, desjabetzak aurpegi soziala daukanez, ez dago erkidegoek jasandako prozesu bortitza salatzerik. Beraz, determinazio askearen aldeko edozein prozesu zirikatzen eta setiatzen ari dira. Bestetik, ordea, benetako egoera ezkutatzeko prozesua bizibiziaz izan arren eta gerra hori isila bada ere, autonomia eratzen ari diren prozesuek aurrerapauso handiak eman dituzte; Chiapasen, esate baterako. 1994. urteaz geroztik, okupazio militarra Mexiko osora hedatu da, narkotrafikoaren aurkako gerraren bitartez. Gaur egun, hain zuzen ere, erkidegoen kontrolpean dauden lurraldeak eta autonomia eratzen ari diren lurraldeak dira inguru osoko eremu seguruenak.

Alde horretatik, itzaropentsu gaude, eta benetan uste dugu kapitalismoaren aurkako beste logika hau, jatorrizko herrien autonomia eratzeke logika hau eta kapitalari beste esangura bat ematen dion logika hau nagusituko dela. Erkidegoetako kideen esanetan, aberastasunaren kontzeptua guztiok eta aurreko belaunaldi guztiak sortu dugunez, zaindu egin beharra dago, dohaintzan emateko eta behar den moduko herentzia uzteko.

Aberastasunaren kontzeptu kapitalistak metaketa sustatzen du, ordea. Beraz, agerikoa da bi ereduak antagonikoak direla. Dena dela, eredu kapitalista nagusi den arren, autonomiaren eraketa ez dago geldirik, eta aurrerapauso handiak ematen ari da. Gerra lurralde nazional osora hedatu da, eta erkidego zapatisten autonomia-prozesua ere Mexikoko beste leku batzuetan sortzen ari da. Beraz, argi eta garbi dago harreman sozialak eraldatu egin daitezkeela, baina ez botereaz jabetzeko eskatuta, erkidegotik bertatik irtendako harreman sozialen logika ezarrita baizik.

GIZA ESKUBIDEAK ETA  
HERRIENAK, ERRONKA ZAHARREN  
GAURKOTASUNA

3



# aurkibidea



3

- Sarrera

4

- Elkarrizketa Brahim Dahane Giza Eskubideen Urraketa Larrien Elkarteko presidentea Mendebaldeko Saharan<sup>1</sup>

7

- Elkarrizketa Sanaa A. Abuzarour Palestinako Emakumeen Batasuneko Komiteak<sup>2</sup>

<sup>1</sup>[www.asdvh.net](http://www.asdvh.net) <sup>2</sup> [www.upwc.org](http://www.upwc.org)





**B**oletin honetan Palestina eta Mendebaldeko Sahararen kasuak ezagutu ditzakegu bietan amankomuneko ezaugarriak aurki ditzakegu, bortxarazitako biztanlegoa baina era berean eusten diotenak. Egoera okerreanean ere, bere bizi baldintzak eta beraien eskubideekiko errespetua hobetzeko, borrokatzen duten komunitateak dira.



Esan beharra dago ere bai, munduan zeharreko eskualde ezberdinetan non, herriek eusten dioten, gizarte tentsioa sortzen dela, hau gobernuaren esku-hartze zuzenaren gaitik gertatzen da, adibidez okupazio militar zuzen batengaitik edota biztanlegoa kontrolatzeko ekintza politiko eta ekonomiko zuzenen bitartez. Estatu eta nazio mailan botere gehien daukaten taldeek Estatuaren indarrak erabiltzen jarraitzen dute beraien interesak, geografikoki estrategikoa den lurralde batetan inposatzeko. Bai Palestinaren kasuan eta bai Mendebaldeko Sahararen kasuan, Israelgo Estatuaren eta Marokoren aldetik, hurrenez hurren, gatazka armatuak jarraitu dezanaren helburu nagusia, biztanlegoari bizimodu bat inposatzean datza, kontrola, asimilazioa eta eusten ari diren herrien iraungitzea ahalbidetuko duena, atsekabeari aurre egiteko, kasu honetan, disidentziak herri okupatzaileen lurralde batasuna, eta nazioarteko legeek esaten dutenaren aurka, lurralde okupatuetako baliabide naturalen ustiapena jartzen du kolokan.

Ikusten dugunez Nazioarteko Legediari era argi eta garbi batetan iruzur egiten zaio, Palestinar eta Saharar herriaren zilegizko borrokan laguntzen duten eskubide sorta baztertu egiten dira, adibidez, bere lurraldean bakean bizitzea lor dezaten autodeterminazio eskubidea edukitzea, beraien usadio eta kulturaren arabera, eta era berean zor zaizkien baliabide natural eta aberastasunetaz gozatzeko eskubidea.

Mundubatetik uste dugu, gatazka konponketa prozesu bat, ez dela soilik borondate on kontua baizik eta jadanik badauden eta era iraunkor batetan urratuak izaten diren eskubide batzuen aplikazioan datzala. Boletin honetan erakusten ditugun kasuak sufritzen duten, eta era berean eusten dioten herrirenak dira, izugarritzko bizitasuna daukatenak. Mundubaten lanak zentzua dauka soilik justiziazko konponbideak laguntzen baditu hau baita bakerako beharrezko baldintza.

Ahalegin honetan Boletin hau aurkezten dizuegu, gure harri-koskor hau, eusten dioten herrientzan bozgorailu moduan baliogarri izan dadin.



## Elkarrizketa Brahim Dahane Giza Eskubideen Urraketa Larrien Elkarteko presidentea Mendebaldeko Saharan

**Brahim Dahane, Mendebaldeko Saharako Giza Eskubideen Urraketa Larrien Elkarteko presidentea.**

### Nolakoa da giza eskubideen egoera Lurralde Okupatuetan?

Galderak berak erantzunaren zati bat ematen digu, lurralde okupatuez ari garelako. Legez kanpoko okupazioa denez, herriak bere etorkizunari buruz erabakitzeke daukan eskubidea urratzen da. Hori dela eta, gaur egun ere oso modu larrian urratzen dira Saharako herriaren giza eskubideak (GGEE). Horretarako arrazoiak era guztietakoak dira, eta, zoritxarrez, gaur egun eta etorkizunean, ez omen da egoera hori aldatuko.

Jendeak gero eta gogo handiagoa, kontzientzia handiagoa eta borondate sendoagoa dauzka, etorkizunari buruz askatasunez erabakitzeke ahalegin nazionaletan parte hartu ahal izateko. Gdeim Izik kanpalekuan eta beste une batzuetan gertatutakoaren ondoren, lanean jarraitu behar dugu. Lanean jarraitzean, helburu hori lortzeko adierazpenak eta manifestaldiak egin behar ditugunez, jendeak protestak egiten jarraituko du, eta Marokoko indarrek betiko moduan zapalduko dituzte. Hainbat preso politiko daude, eta, esate baterako, Dakhilako egoera ere hartu behar da kontuan, Marokoko kolonoek eraso egin ziotelako eta setio militarpean dagoelako. Aaiun bera ere gero eta militarizatuago dago, Marokok hainbat eta hainbat militar ekarri dituelako eta hiriko zein inguruko kaleak zein etorbideak setiatu dituztelako. Testuinguru horretan, ez dago inolako askatasunik. Esate baterako, udan, jendeak itsasora eramaten zituen seme-alabak, baina orain ez du bertan geratzeko "haimarik" jartzerik. Bestetik, jendeak oso gogoko zuen basamortuan tea hartzea, oso ohikoa delako Saharan, baina ia-ia debekatuta dago.

Maroko eta indar handiagoz ari da Saharako herriaren aurkako zapalkuntza-makina ezartzen, eta eskualdeko zein nazioarteko indarrek ez dute ezer txo ere egiten. Orain arte, behintzat, badirudi Nazio Batuen Erakundeak eta Segurtasun Kontseiluek ezer egin ez dutela. Nazioarteko elkartasun-indar guztiak, ordea, jarraipena egiten ari dira, eta etengabe ari dira oihukatzen egoera latza bezain onartezina dela eta erregimen okupatzaileak eskubideak behin eta berriro eta etengabe urratzen dituela.

Nolakoa da gaur egun Marokoko espetxeetan dauden preso politikoen egoera?

Espetxea espetxea da. Niretzat oso zaila da horri buruz hitz egitea, zenbait aldiz egon naizelako bertan. Preso politikoen egoera nahikoa latza da. 2006an bertatik atera ahal izan genituen argazkiak dira horren adierazgarri. Zoritxarrez, gero ez dugu halakorik berriro egiteko aukerarik izan, baina egoera latza da benetan. Batzuk 40 egun baino gehiago eman dituzte gose-greban. Tamalez, zenbait presok itaunketak, torturak eta tratu txarrak jasan behar izan dituzte espetxeetan. Erregimen osoaren mendekuko biktimak izan ziren, eta Marokoko erregimen osoa salatzen ari naiz. Izan ere, modu ofizialean egin zen, eta espetheen erakundeak zein Marokoko sistema judizialak parte hartu zuten bertan. Marokoko sistema judiziala Marokoko zerbitzu sekretuen orientazioen arabera lan egiten duten ofizialen esku dago.

Jakina, presoan artean, giza eskubideen hamarnaka defendatzaile daude gutxi gorabehera, eta nahikoa nabariak zein ezagunak dira nazioartean. Asko dira, eta nire babesa eman nahi diet. Gainera, maite ditugula eta euren alde zein preso politiko guztien alde benetan nahiz etengabe lan egiten ari garela esan nahi diet. Nik eta ehunka lagunek bezala, haiek ere espetxetik irtetea lortuko dute. Bertatik irten eta askatasuna izango dute.







## Elkarriketa Brahim Dahane Giza Eskubideen Urraketa Larrien Elkarteko presidentea Mendebaldeko Saharan

Gdeim Izik kanpalekua zer izan da eta zer da gaur egun Saharako herritar guztientzat?

Gdeim Iziken garaian, espetxean nengoen, eta, kanpalekua desegin baino hiruzpalau egun lehenagora arte, etengabe egon naiz harremanetan eurekin, espetxean mobila neukalako ezkatututa. Benetan mingarria da esatea garai hartan nirekin harremanetan egon ziren guztiak orain espetxe horretan daudela esatea, Saleko espetxean, alegia. Onespen-agurra bidali nahi diet, eta, euren handitasun eta ausardiagatik, borrokan jarraituko dugu. Espetxetik bertatik, ahaleginak bateratu ditugu. Gdeim Iziken, indarrak eta esperientziak uztartu ditugu, baita geure harremanak ere. Bake-bide baketsu berria da, giza sorkuntza baliotsu bezain baketsua da, alegia.

Niretzat, Gdeim Izik Marokoko propagandaren amaieraren adierazgarri da. Gdeim Iziken, Marokok bere propaganda antolatu du, munduari Saharako herria eremu okupatuan paradisuan bizi dela esateko, mundu guztiak lana duela adierazteko, dirua daukala azaltzeko... Maroko dirutza inbertitzen ari da propagandan. Horren aurrean, Gdeim Izikek munduari esan dio ezetz, Saharako herriak ezer ez daukala eta bere lurrean bertan dagoela zapalduta. Horixe bera da Aaiungo sahararren %60k baino gehiagok munduari esan diotena.

Hilabetean, Saharako gizon eta emakume gazteek den-dena antolatu zuten modu baketsuan. Beraz, ageri-agerian utzi dute elkarbizitzarako erabateko erantzukizuna dutela, fede onekoak direla eta elkartasuna lehenesten dutela. Gdeim Iziki esker, Saharako auzian sartzeko beldur zen jendea ere inplikatu du; esate baterako, diru gutxi zuen jendea edo Marokoko administrazioan lan egiten ari zen jendea.

Gdeim Iziki esker ere, zenbait eztabaida ere piztu dira munduko leku guztietan: Europako Parlamentuan zein Afrikako edo Amerika Latinoko parlamentuetan. Horren bidez geureganatutako indarraren eta argitasunaren ondorioz, Saharako kontzientzia kolektiboa areagotu egin da eta lortu egin dezakegula uste dugu. Proba handia izan zen Saharako herriarentzat berarentzat. Orain espetxean badaude ere, Gdeim Izik muntatu zutenak liderrak izan ziren, eta saharar guztiok harro-harro gaude eurekin.

Nolakoa da Marokoko kolonoen zeregina, Gdeim Iziken gertatutakoaren ostean?

Gdeim Iziken aurreko egoera eta gaur egungoa ez dira berberak. Marokok eremu okupatuan dirutza inbertitzen duela dio beti. Gdeim Izik bera beste faltsukeria horren erakusgarri ere izan da. Izan ere, Marokok ez du ingurua garatzeko dirurik inbertitzen: ez du unibertsitateetan, lantegietan... inbertitzen. Kolonoak erakartzeko erabiltzen du dirua, eta, horrela, inguruko oinarri demografikoa aldatzen du. Oinarri demografikoa aldatzean, nahierara erabiltzeko eta gerra zibila sustatzeko jendea dauka bertan. Kolonoak, beraz, denbora-bonbak dira beti, eta edonoiz egin dezakete eztanda. Horra hor landu beharreko beste gai bat, Marokoko gizarte zibilarekin daukagun harremana, alegia. Hala ere, kolonoen ezjakintasunari eta analfabetismoari aurre egin behar diegu, baita Marokoko erregimeneko adimen-zerbitzuei ere. Era berean, Marokoko propagandari eta Frantziaren zein beste herrialde batzuen babes itsuari ere aurre egin behar diegu, zoritxarrez. Horixe da egoera, eta oraindik ez dugu sistema eraginkorrik aurkitu, Marokoko gizarte zibilarekiko harremana neutralizatzeko.

Nola egituratu da erresistentzia Gdeim Iziken gertatutakoaren ondoren?

Oso galdera ona da, erreferentzia ez ezik, Gdeim Izik guraria eta zor moralara ere izan delako Saharako militantzia guztiarentzat. Badirudi orain antzeko zerbait edo garrantzitsuagoa egin behar dela. Gainera, guztiok dakigunez, ahaleginak ahalegin, batzuetan ezinezkoa da nahi duguna lortzea, une historikoarekin daukalako zerikusia. Horrez gain, Gdeim Izik bera ere saharar guztion artean etorkizunari buruz irekitako nolabaiteko eztabaidaren ondorioz sortu zen. Galdera hori nahikoa gogorra eta astuna da edozein militantzarentzat. Dena dela, nire ustez, erabilgarria da gizartearentzat, kontzientzia bera areagotzen duelako. Erreferente hori, hain zuzen ere, abiapuntutzat hartu dugu hausnartzeko eta eztabaidatzeko orduan.



## Elkarrizketa Brahim Dahane Giza Eskubideen Urraketa Larrien Elkarteko presidentea Mendebaldeko Saharan

Marokoko gizarte zibilean, badago erakunderik sahararren borroka babestu eta Marokoko gobernuak giza eskubideen arloan egindako urraketak salatzen dituenik?

Bai, badago. Esate baterako, Giza Eskubideen Elkarte Marokoarra (AMDH) izan zen lehenengoa, eta Marokoko garrantzitsuena da. Hala ere, beste batzuk ere badaude. Gdeim Izik desegin ondoren, Elkarte Marokoarra oso progresista izan da, giza eskubideen babeserako mekanismoa sortu behar dela esatean. Elkarteak berak txostena egin du beste elkarte batzuen laguntzaz, egitateak gertatu bezala salatzeke. Hori oso-oso garrantzitsua da. Aldi berean, otsailaren 20ko mugimendua ere hartu behar da kontuan. Beraz, gauzak ondo joango direla uste dut.

Antzina, marokoarrek ez zuten politikaz eta, batez ere, Mendebaldeko Saharaz argi eta garbi hitz egiterik. Egoera hori, ostera, aldatzen ari da, eta, aurrerapauso nabaria denez, gauza askoren zain gaude orain.

Hemendik, nolako ekarpena egin dezakegu edo nola lagundu dezakegu lurralde okupatueto borrokari begira?

Urteak daramatzazue hori egiten. Mundubat-ek eta mugimendu solidarioak jendea bidaltzen digute, eta larrutik ordaintzen ari dira, tamalez. Lehenengo eta behin, erabateko eta baldintzarik gabeko babesa eta elkartasuna adierazi nahi dizkiet bahitutako kideen familiei, Mundubat-i eta lankidetzeta-munduko jende guztiari. Alde horretatik, eskerrak eman nahi ditugu behatzaileak gurrera etortzeagatik, baina sahararrak estatu espainolera ekartzeagatik ere bai. Gaztelania berreskuratu nahi dugu, oso erabilgarria delako lankidetzari zein prestakuntzari begira eta, aldi berean, estatu espainoleko herri guztiakin ere lotzen gaituelako.

Espainiako gizarte sentsibilizatzea oso garrantzitsua izan daiteke, baita elkartasun-mugimenduaren ahaleginak bikoiztea ere, Espainiako sistema politikoa eragina edukitzeke. Izan ere, horrela, Espainiako instituzioek Saharako auziarekin konpromisoa hartu lezaketela uste dut. Oinarrizko gaia eta desberdina izan behar da Espainiako sareen arteko eztabaidetan eta, batez ere, gizarte zibilaren eta politikarien zein gobernarien artekoetan.

Amaitzeko, zein dira etorkizunerako aurreikuspenak?

Etorkizuna etorkizuna da... Baikorrak izan behar gara, haratago doan ikuspegia eduki behar dugu, amesteko moduko eremua sortzeko, behintzat. Gogorlan egiten jarraitu behar dugu, baina, aldi berean, oztopoak oztopo, oinazeak oinaze eta sufrimenduak sufrimendu, bizitzen jarraitu behar dugula ikasi behar dugu. Batzuetan gatazketan sentitzen dugun ezintasuna erabakigarria izan daiteke, alderdi psikologikoa da, alegia. Beti-beti, indartsu egon behar gara, ikuspegi argi bezain erabakigarria eduki behar dugu, jasaten ere ikasi behar dugu eta, horrela, geure helburua lortu ahal izango dugu, hau da, Saharako herriaren askatasuna erdiestea.

Besterik esan nahi duzu?

Mundu zabaleko leku guztietako mundu solidarioa agurtu nahi nuke, baina, batez ere, Espainiako estatukoa. Era berean, harro-harro nago, mugimendu solidario horren zati handiena gaztea delako eta nahikoa ikuspegi argia eta sendoa dituelako.



## Elkarrizketa Sanaa A. Abuzarour Palestinako Emakumeen Batasuneko Komiteak

Sanaa A. Abuzarour

Palestinako Emakumeen Batasuneko Lantaldeak / Union of Palestinian Women Comittes

Palestinako mugimendu feministak lau adar ditu: kontserbadoreak, erlijiosoak, liberalak eta sozialistak. Zure erakundeak, badago kontserbadorerik eta erlijiosorik edo ezkertiarrek baino ez?

Gure batasunean, ezkertiarrek baino ez daude, eta sozialistak ere bai. Geure agenda dugu, honako bi arlo hauetan borrokatzen jarraitzeko: arlo nazionala eta arlo sozio-ekonomikoa. Ez gara arlo erlijioso edo legalera mugatzen. Izan ere, geure agenda dugunez, bi zubi horien arteko independentzia daukagu.

Nola borrokatzen zarete Palestinako gizarte patriarkalaren aurka, mugimendu erlijiosoaren bidez?

Gogorra da, benetan. Ez da batere erraza, baina, apurka-apurka, zerbaiti buruz hitz egin dezakegu erlijioan, emakumeek eskubideak dituztela esan dezakegu. Emakumeak gizaki adimentsuak dira, eta badute eskubiderik. Abiapuntu horretatik, beste urrats bat eman dezakegu: emakumeak gizakiak direnez, hezkuntza jaso behar dute; emakumeak gizakiak direnez, euren bizitza errespetatu beharra dago. Hala ere, hori guztia apurka-apurka egin beharra dago.

Dena dela, emakume eta gizonekin lan egiten dugu. Gure mugimenduko zenbait gizon pentsamolde irekikoak direnez, gure pentsaeraren alde daude.

Lau ikuspegi hauetatik, zein da egokiena: kontserbadorea, erlijiosoak, liberala edo sozialista?

Gure gizarteak pentsamendu erlijiosoak ditu. Umeek eta gaztetxoek maitasunaren eta gorrotoaren inguruko esamolde erlijiosoak ikasten dituzte lehenaldetik: hori egiten baduzu, hauxe gertatuko zaizu... Kontzepzio erlijiosoak gure gizartearen egiten ditugun gauza guztietan dago, jendeak berez jartzen du agerian. Edonola ere, ikuspegi politikotik hitz egiten dugunean, alderdiek, eta Hammasez ari naiz, euren pentsamoldea onartua izateko oihartzunen bat aurkitu dezakete gizartearen.

Banatu ostean, Palestinako Agintaritza Nagusiak zuzendutako estatua eta Hammasek Gazan zuzendutakoa geneuzkan. Palestinako kaleetan ere, jendea bi indar horien artean dago banatuta. Jakina, Gazan agerikoa da Hammasek alde daudela, baina Zisjordanian, ez, ordea.



BAKEA ERAIKITZEN,  
ERTAMERIKAKO BEGIRADA BAT

4



# aurkibidea



- 3 - Sarrera
- 4 - Erdialdeko Amerikako egoeraren testuinguru orokorra
- 6 - Elkarrizketa, Lourdes Palacios, FMLNko diputatua (El Salvador)
- 11 - Elkarrizketa Enrique Corral, Guillermo Toriello fundazioko zuzendaria (Guatemala)
- 14 - Elkarrizketa Sara Elisa Rosales (Honduras) Emakumeak Erresistentzian Mugimenduko partaide eta Herri erresistentzia fronte nazionaleko koordinakundeko finantza arduraduna

Hemen aurkezten dizuegun boletín honetan, Ertamerikako ibilbide historikoa erakutsi nahi dizuegu, non nazio askapenerako borroka ezberdinak eman diren, denboran zehar markatutako helburuak lortzeko garaian metodo ezberdinak erabiliaz hori bai. Ideia aurrerakoen onena askapen prozesu hauetan bildu da bai El Salvadorren eta bai Guatemalan. Hauek dira hemen aurkezten dizkizuegun kasuak.

70, 80 eta 90 hamarkadetan zehar, Ertamerikan nazio askapen borroka ezberdinek bat egin zuten. Guatemala eta El Salvadorren askapen borrokek justizia soziala eta demokrazia zabalago bat lortzeko garatu ziren. Non, parte-hartzerako guneak guztiz itxita zeuden eta soilik familia oligarkikoen alde zegoen sistema politikoa aldetzeko ahalegin guztiak debekatuta zeudenez borroka armatuaren hautua egin zen. Askapen prozesu hauek, bake prozesu batzuetara iritsi ziren, ezberdintasun nabariekin baina eskualde horrek bizi izan dituen gerra ankerrenen bukaera suposatu zuten.

1992an El Salvadorren eta 1996an Guatemalan sinatutako bake akordioek, borroka armatuaren amaiera suposatu zuten baina suposatu al du herri hauen hiritarrentzat bakea? Egun, 20 urte igaro dira, akordio hauen sinaduraren ostean baina bi herrialde hauetan gizarte biolentzia indiziek oso larriak dira.

Emakumeen eskubideen urraketak atentzioa deitzen du, hauek era askotakoak dira, eta bizitzaren arlo publiko nahiz pribatura eragiten diote. Emakumeen aurkako biolentzia munduko gizarte guztietan dago, bere sistema ekonomikoa edota politikoa dena dela ere, hau da dagoen eskubide urraketa zabalduena, ezkutuen eta zigorgabetasun handiena daukana. Eguneroko eskandalu hau era ezberdinetan adierazi eta mantentzen da eta gune ezberdinetan ematen da baina sustrai berbera dauka hau da emakumeenganako diskriminazio unibertsala, emakume izateagaitik pairatzen dutena.

Kalkuluen arabera hiru emakumeetatik bat jipoitua da, erlazio sexualak edukitzera behartua da edo bortizkeria motaren bat jasaten du bere bizitzan zehar. Feminizidioak emakumeekiko bortizkeria mota larriena suposatzen dute, eta Guatemala eta El Salvador bezalako herrialdetan gora egin du azkeneko urteetan. Adibidez Gutemalan, azkeneko 5 urteetan 3.500 emakume baino gehiago erailiak izan dira, 2007an bakarrik 772 izan ziren, urtero erailiak diren emakumeen zenbakia oso larria jarraitzen du izaten. Feminizidioaren delituan ekitate ezak eta kulturalki gizartean ezarritako genero rola non pertsona batek bestea menderatzen duen, paper garrantzitsu bat jokatzen dute.

Zein da Ertamerikako emakumeentzako bakea? Ezin dezakegu ahaztu ertamerika dela emakumeekiko biolentzia tasa altuenak ematen diren eskualdea. Litekeena da feminizidioa izatea bi herrialdeetan Giza Eskubideen urraketa larriena.

Boletín honetan bi herrialde hauen bake prozesuaren ibilbidea islatu nahi dugu, bere itzal eta argiekin. Horretarako El Salvadorreko Lourdes Palacios FMLNko Diputatua eta Guatemalako Enrique Corral Toriello Fundazioko presidentearen testigantzak ditugu, non Guatemala eta El Salvadorren gertatutakoaz ikuspegi orokor bat eskaintzen diguten. Horretaz gain Honduraseko kasua aztertzen dugu Sara Elisa Rosales, Erresistentzian dauden emakumeen eta erresistentzia fronte nazionalen finantza arduradun denaren bitartez. Non, 2009 Estatu kolpe bat egon zen, uste genuen gaituta zeuden gaitan bezala.

Mundubatek oran dela 20 urte konpromezu etiko eta político bat dauka eskualde honekin, hemen asi baitgenuen gure lana GGKE bezala, eskualdean ematen ari ziren gerra ezberdinen errefuxiatuei itzultzeko laguntza emanez.

## Erdialdeko Amerikako egoeraren testuinguru orokorra

## I. Erdialdeko Amerikako feminizidioa

Erdialdeko Amerikako feminizidioen tasa hain-hain handia denez, pandemia-mailara iritsi dela esan genezake. Hain zuzen ere, herrialde horietan emakume gehiago hiltzen dira genero-indarkeriaren ondorioz gerraren ondorioz baino. Gainera, oso-oso kontuan hartu beharra dago lehenengo fenomeno ikusezina dela eta, bertan, zigorgabetasuna nagusi dela.

Emakumeen aurkako indarkeria hain larria denez, Salvador, Honduras eta Guatemalako osatutako eremua “emakumeen heriotzaren triangelua” dela esaten dute. Feminizidio gehienak, hain zuzen ere, eskualde horietan gertatzen dira, baita Ipar Amerikan kokatutako Mexikon ere.

Salvadorren, beste herrialde batzuetan bezala, desberdintasunak dira nagusi, emakumeek baliabideak eskuratzetik eta kontrolatzetik ez dutelako, emakumeek partaidetza politikorik ez daukatelako, laneratzeko zailtasunak dituztelako, euren gorputzen gaineko autonomiarik ez daukatelako eta, oro har, desberdintasun horiek emakumeen bizitzako arlo guztietan gertatzen direlako. Horrez gain, datu ofizialik ez dagoenez eta kasuen ikerketarako eta jarraipenerako baliabide finantzariorik ez dagoenez, senitartekoez ez salatze-ko erabakia hartzen dute gehienetan.

Estatu-kolpeaz geroztik, Hondurasko indarkeria soziala areagotu egin denez, feminizidioen kopuruak ere gora egin du. Izan ere, oso eraginkorra ez den justizia-sistemak egiturazko arazoak ditu, ez ditu feminizidio-kasuak argitzen eta ez dago arazoaren larritasunaren araberako lege-esparru egokirik. Horrez gain, ustelkeriaz betetako estatuko instituzioak ahulak dira, eta herri-tarrek ez dute inolako sinesgarritasunik eta konfiantzarik estatuko segurtasun-taldeetan, konfiantza hori apurtu egin zelako polizia bera estatuko kolpeko errepresio ikaragarrietan inplikatu zenean. Beraz, kasuak metatu arren, ez dago egoera horri erantzuteko moduko sistemarik, eta, kasu horiek ikertzeko interesik ere ez dagoenez, zigorgabetasuna da nagusi.

Guatemalako testuinguruan, ordea, oso eragin handia eduki du 36 urteko gatazka armatuak. Urte horietan, hain zuzen ere, emakumeek abusu sexualak jasan zituzten, eta Guatemalako armadak gerrako estrategia moduan erabili

zituena emakumeen gorputzak. Nahiz eta gaur egun Guatemala bake-giroan dagoen, oraindik ere bizitako gatazkaren ondorioak antzematen dira, eta herrialdeak bere historiako une bortitzenetakoa bizi du. Izan ere, gatazkaren osteko Guatemalan, desberdintasun soziala da nagusi, ekonomia, gizarte, hezkuntza, kulturaren... arloan garatzeko aukerei dagokienez. Esparru horretan, emakumeen erailketak areagotu egin dira, baina emakumeen aurkako indarkeria beldurratetik salatzen ez denez, zigorgabetasuna bera areagotu egiten da, eta indarkeriak bere horretan irauteko arrazoietakoa ere bada.

## II. Lege-arloko aurrerakuntzak

Lege-arloko aurrerakuntzak Erdialdeko Amerikan nahiz Amerika Latinoan gertatu dira, oro har, gizarteak presio handia egin duelako eta emakumeen mugimenduak antolatu egin direlako. Hain zuzen ere, genero-indarkeriaren eta feminizidioaren arazoak nazioarteko foroetako eztabaidagaiak izatea lortu dutenez, lehen aztertu ditugun adierazpenak eta konbentzioak sortu dira. Lan hori, gainera, nazio-mailan bertan ere islatu da, legegintzako proposamenak egin direlako, genero-indarkeriari buruzko lege zehatzak onartu direlako eta feminizidioa/femizidioa zigor moduan tipifikatu delako.

Feminizidioa/femizidioa eta emakumeen aurkako indarkeria tipifikatzeko orduan, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko legeriek bi murriztapen handi dituzte: batetik, *arlo pribatura mugatzen dira*; eta, bestetik, genero-termino neutroetan ematen dute babesa.

Lehenengo mugari dagokionez, herrialde askok genero-indarkeriaren aurkako lege zehatza dute, eta feminizidio/femizidioaren delitua hartzen dute kontuan, baina indarkeria hori etxe-ingurunera mugatzen dute. Hartara, harreman intimoen edo bikote-harremanen esparruan gertatzen den indarkeria baino ez da delitua edo arau-haustea. Hain zuzen ere, Costa Ricako eta Txileko legeak dira horren erakusgarri. Murriztapen horrek, ordea, ezezagunek eraildako emakumeen kasuak uzten ditu kanpoan; esate baterako, eraso sexualaren ondorioz gertatutako heriotza edo Ciudad de Juárezko kasuak.

Bigarren mugari dagokionez, lege horiek genero-termino neutroetan ematen dute babesa, hau da, ez dira *emakumeen babes berezira*ko legeak, nahiz eta emakumeak etxeko indarkeriako eta bikote-indarkeriako biktima nagu-

siak izan, ez-berezikeriaren printzipioa ez urratzeko. Emandako argudioen arabera, inguruabar berberetan biktimaren generoaren araberako zigor-tipoa ezartzen bada, gizonen aurkako bereizkeria egiten da, balio handiagoa eman-go litzaiokeelako emakumeen biziari gizonen biziari baino. Bestetik, delitugilea gizona dela uste izanez gero, erruduntasun-presuntzioa urratzen da, eta, horren ondorioz, atzerapauso handiak emango lirarteke Zigor Zuzenbidean. Bertan, hain zuzen ere, legez kanpoko jokabideak edo jokabide debekatuak zigortzen dira eta ez egilearen nortasuna. Izan ere, mugimendu feministek genero-neutraltasuna erabili dute argudio moduan, emakumeen artean bakarrik eragina zeukaten delituak kentzeko; adulterioa, esaterako. Edonola ere, feminismoak eta emakumeen mugimenduek lege zehatz horiek eskatzen dituztenean, babes berezia behar dutelako egiten dute horrela, emakumeen aurkako indarkeria generoan oinarritzen delako. Beraz, ez dago osagai sexista hori alde batera uzterik, hilketa arrazistetan hilketa sorrarazi duen arrazakeria albo batera uzten ez den bezala, eta horregatik ez da inondik inora esaten ez-berezikeriaren printzipioa afroamerikarren alde urratu denik, esaterako.

Espanian bertan, 2004ko Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integrale-rako Neurriei buruzko Lege Organikoa da genero-neutraltasuna alde batera utzi izanaren adierazgarri. Lege horren arabera, zenbait delitu larriagotu egiten dira, gizonak “emaztearen edo, elkarrekin bizi ez arren, berarekin antzeko afektibotasun-harremana daukan edo eduki duen emakumearen” aurka garatzen dituen. Nabarmendu egin behar da generoaren muga utzi duela alde batera, baina ez dituela delitu horiek arlo pribatura, bikote-ingurunera edo familiara bertara mugatu. Dena dela, Auzitegi Konstituzionala ez-berezikeriaren printzipioaren urraketaren inguruko zalantzak argitu zituen, eta delituak larriagotzea konstituzionala da, emakumeen aurkako indarkeria-adierazpide horien azpian dagoen egiturazko bereizkeriaren arabera.

Feminizidioa Amerika Latinoan tipifikatzean ere, bide horretatik jo dute, genero-neutraltasunari egiten diotelako uko. Izan ere, gomendio hori egiten da Belem Do Paráko Konbentzioa Ezartzeko Jarraipenerako Mekanismoan,

neutraltasunaren ondorioz arau horiek emakume biktimen aurka erabili ez daitezzen, euren erasotzaileei eraso egin edo hil egiten dituztenean.

Costa Ricako, Txileko eta Guatemalako legeetan, delitua tipifikatzean genero-parametroak ezartzen badira ere, zigorra ez da handiagoa, hau da, parrizidioaren delituagatik (ezkontidea edo ohaidea hiltzeagatik) ezarritako zigor berberen bitartez zigortzen dute feminizidioa/femizidioa.

Erdialdeko Amerikan, Guatemalak lege berezia dauka, 2008ko Emakumeenganako Feminizidioaren eta Beste Indarkeria Adierazpide Batzuen Aurkako Legea, alegia. Lege hori oso lorpen handia izan da, feminizidioa delitu penaltzat hartzen duelako eta misoginiaren terminoa ere kontuan hartzen duelako. Izan ere, emakumeen aurkako indarkeria sorrarazten duen oinarritzko arazoa dela aitortzen du. Nolanahi ere, lehen esan dugunez, feminizidioa delitu berezi moduan tipifikatuta ere, ez da parrizidioaren delituan baino zigor handiagoa ezartzen.

Hondurasen, ordea, feminizidioa ez dago delitu berezi moduan tipifikatuta. Emakume antolatuen mugimenduek estatu demokratikoa berrezarri nahi dute, eta, hori lortzean, justizia-sistema eraldatu eta behar besteko legeria ezarri nahi dute, emakumeen aurkako indarkeriako delituak jazartzeko eta feminizidiogileak zigortzeko.

Salvadorren, esaterako, 2009ko Emakumeak Indarkeriarik Gabe Bizitzeko Lege Integrala dute. Lege horretan, estatuak bere gain hartu beharreko betebeharrak nabarmentzen dira: “prebenitzea, atentzio integrala eskaintzea, jazartzea, zigortzea eta kalte-ordainak ematea; (...) legearen ezarpenerako aurrekontua eta mekanismoak bermatzea; eta sektore arteko politiken garapenerako aurrekontua eta mekanismoak ziurtatzea, apurka-apurka atentzio integrala eskaintzeko eta emakumeen aurkako genero-indarkeria desagerrarazteko”. Legearen gabezia nagusiari dagokionez, arlo pribatura mugatzen dela esan beharra dago, hau da, familiako bertako indarkeriara mugatzen da, eta emakumeek emakume izateagatik jasandako biktimizazioa uzten du alde batera.

<sup>1</sup>Patsilí Toledo. <sup>2</sup>Cawn, 15. or.





## Lourdes Palacios, FMLNko diputatua (El Salvador)

**Zer ondorio izan zituzten 1992ko Bake Hitzarmenek? Borrokarako erakundea izan zaretela kontuan hartuta, azalduko diguzu nolako aukerak zenituzten 1992. urtea baino lehen eta zein dituzuen gaur egun?**

1992an ere bazegoen aukerarik. Euren artean, diktadura militarrez betetako gizarteari egin genion aurka, eta onartu egin zen asko eta asko egoera horren aurka matxinatu ginela beste aukerarik ez zegoelako.

Orduan, aukera handia izan zen beste jarrera batzuk zeudela jakitea, beste pentsaera bat zegoela eta jendeak beste era bateko herrialdea eduki nahi zuela, aberastasunak, diru-sarrerak eta lurra bakarrik ez metatzeko. Oso aukera handia izan zen Bake Hitzarmenak baino lehen, jendearen etsipen herri-mugimendu antolatu bihurtu zelako. Dena dela, bide horretatik jo behar izan genuen, beste aukerarik ez zegoelako.

Bake Hitzarmenen ostean, aukera handi hori ireki zen. Lehenengo eta behin, diktadura amaitu zen, eta, agerikoa denez, herrialdean ekoitzitako guztia euren esku zeukaten familien txotxongiloak ziren. Hori guztia amaitu egin behar zen. Lorpen, aukera handia izan zen Salvadorko gizartean giza eskubideak errespetatzeko zituen instituzionaltasuna ezartzea eta biztanleek aspaldidanik eduki behar zituzten eskubide zibilak lortzea.

1950ean Konstituzioa eraldatu zenean, emakumeok ere bozkatzeko eskubide geneukala aitortu zen. Oso polito dago idatzita, baina ez zen egia bihurtu, eta herritar guztien sufragioaren erabilera ere behin eta berriro urratu zuten, gainera.

Hori dela eta, instituzionaltasun hori aldatu zen, eta, Bake Hitzarmenen ostean, sendotasunez, gardentasunez eta eraginkortasunez eratzeke moduko sistema ezarri zen.

Era berean, gure gazte eta emakumeentzako aukerak ere badaude. Dena dela, beste giro batean garatzen dira, gatazka armatua bertan behera utzi ondoren. Argi eta garbi dago hori ez dela berez gertatzen, herrialdeko oso eskuin kontserbadorearen interesak botere ekonomiko eta politikoari eutsi diolako betidanik. Orain, ordea, ezkerreko proiektua dago herrialdean, eta, Bake Hitzarmenez geroztik, iritsi ahal izan gara honaino. Gobernu zentrolean gaude, apurka-apurka baldintza horiek sortzeko joko-arauak hobetu ditugulako. Horrela, bada, jendeak,

jendearen ordezkariak eta gobernuan daudenek erabaki dezakete. Aukera hori ere zabalik dago gaur egun. Oraindik ere badago zer egin ugari, baina, nire ustez, arlo sozial eta politikoari begira, horrexegatik lortu ahal izan ditugu Bake Hitzarmenak.

**Agerraldiko uneren batean, emakumeen botorako eskubidea aipatu duzu. Nolako zeregina izan dute emakumeek prozesu historiko oso horretan? Zeresan handia izan dute bakearen eraketan?**

Inolako zalantzarik gabe, bai. Gutxi gorabehera, gure gizon eta emakumeen ehunekoak berberak izan dira herrialde osoan. Azken urteotan, ordea, emakumeen ehunekoak gizonena baino handiagoa dela esan daiteke. Emakumeen partaidetza garrantzitsua izan zen, baina independentzia-prozesuko urteetatik. Emakume asko erabakigarriak izan ziren, herrialdeko aldaketak bultzatzeko orduan, eta gutako asko zenbait arlotatik inplikatu ginen: profesional moduan eta ikasle moduan eta hainbat odol preziatu galarazi zuen gerrara joandako semeen ama moduan. Talentu horiek bidean geratu ziren, baina euren ekarpena egin zuten prozesu honetan. Emakumeok eraketarako eta ekarpenetarako posizioetan egon gara beti, baina erabaki-guneetan ere bai. Nire ustez, FMLNk herrialdean egindako ekarpen handienetakoa izatea lortu du, argi eta garbi erakutsi delako emakumeek gaitasuna dutela, baina prozesuan kontuan hartu beharreko emakume-ikuspegia ere bai.

Gatazka armatutik hona, Bake Hitzarmenen osteko fase honetara, gure alderdiak erakunde edo tresna moduan esku hartu du, eta emakumeon partaidetza zein garapena sustatu ditu, alderdian emakume asko daudelako eta, horrez gain, emakumeon %35 erabaki publikorako karguetan eta alderdiko barne-zuzendaritzako karguetan egotea nahi duelako. Horrelaxe betetzen da, hain zuzen ere, Errepublikako legea delako, gure alderdiko estatutuak direlako. Hori guztiori bete egin behar da. Alde horretatik, ahalegin kuantitatiboa eta kualitatiboa egin behar dugu. Kargu publikoetan eta alderdiko barne-zuzendaritzako karguetan egongo diren emakumeak prestatzeko eta emakume gazteen partaidetza sustatzeko asmoz, Emakumeen Idazkaritza Nazionala dugunez, oso partaidetza kontzientea ere bada alde kualitatiboari begira.



## Lourdes Palacios, FMLNko diputatua (El Salvador)

Prozesu horretan, Salvadorko gizarteari erakusten diogu FMLN bera eta FMLNko emakume militanteok izan garela Biltzarretik edo toki-gobernuetatik zenbait arlotako borroka garatu ditugunak: hauteskundeetako borroka, borroka ekonomikoa, ingurumen-arlokoa... Zuzendaritza-karguetan eta kargu publikoetan gaude, baina oso proaktiboak gara, ez dugu geure izena bakarrik ematen, prozesuak zuzentzeko benetako gaitasuna dugulako.

Gerran, era batera egin zen; eta, orain, beste batera. Hala ere, FMLN zentzu horretan borrokatu da beti. Alderdiaren zeharkako lerroa dela esan daiteke, eta, bertan, gure partaidetza eta erabaki-prozesuak bultzatu daitezke.

### Gaur egun, zein dira gobernuaren eta, kasu honetan, FMLNren legegintza-erronkak?

Legegintzako zein ikuspegi-arloko erronka batzuk partekatua dira. Era berean, jendeak gutxienez bi kezka dituela antzeman dugu. Lehenengo eta behin, herritarren segurtasuna dugu. Herrialdearen mehatxu handia eskualdean dago, baina arazo bakarra ez da delinkuentzia soila, krimen antolatua baizik. Izan ere, Erdialdeko Amerikako herrialde guztietara iritsi da, eta, Hego Amerikaren zein Ipar Amerikaren arteko igarobidean gaudenez, nahitaez zeharkatzen dute gure herrialdea. Hori dela eta, herrialdeko egoera gero eta zailagoa da. Jende askoren esanetan, oso txarto gaude orain, gerran ere ez geunden horrela, baina, nire iritziz, gobernu eta gu geu, FMLN moduan, arlo horretako erronkak jorratzen ari gara bete-betean. Duela hiru urte egin genituen proposamenen arabera ari gara lanean, prebentzioa sustatzeko. Nire ustez, honako hauxe da erronka nagusietakoa: nola eduki prebentziorako politika publikoak, gazteak eroso-eroso bizibide horren bila joan ez daitezen; eta, bestetik, nola hobetu herritarren bizikidetzarako eremuak. FMLNko alkatetzetan hori guztiori ari gara lantzen. Era berean, Herritarren Bizikidetzari buruzko Lege Proposamena ere egin dugu, aurton onartu da eta indarrean sartzeaz dago. Horri esker, jendeak auzo-mailan dituen arazo asko kontrolatu ahal izango dira. Agerikoa denez, agintariekin eta arlo horretako adituekin landu behar da nola aurre egin segurtasunik ezari. Edonola ere, prebentzioaren arloan badago zer indarturik, eta horretarako proposamenak

ditugu. Bigarrenez, delituak modu profesionalean ikertu behar ditugu. Arenasen gobernuaz geroztik, arlo hori oso ahulduta geratu zen. Arenasen 20 urteko gobernuaren herentzia da, eta, orain, FMLNk berak aurre egin behar dio. Jakina, gauza asko daude barneratuta, eta nola aurre egin aztertu beharra dago. Arazoa ez da gaitasunik ez egotea edo FMLNk egoera kontuan ez hartzea. Inolaz ere ez. Gure alderdia, parlamentuan dugun taldea agintariekin, gobernuarekin, gobernuan eta Biltzar Legegilean bertan ari da lanean, behar besteko araudia egiteko.

Beste arlo batean, arlo ekonomikoan, hain zuzen ere, eragin orokorreko egoeran gaude. Hala ere, 1989an Arenasen alderdiak presidentetzara heldu zenetik, Washingtoneko Adostasunaren ondorioz sortutako politika ekonomikoko zenbait neurri ezarri ziren herrialdean, eta oso egoera larrian utzi dute herrialdea. Ez zuten inolako ikuspeirik izan, “tira, ondo da” esateko. Oso interesgarria izan daiteke formula horiek ezartzea eta irekitzea, baina herrialdearentzako gutxieneko baldintzak ere bermatu behar dira, eta ez halakorik egin. Garai hartan, ez zuten zentzu horretan lan egiteko borondaterik eduki, eta gaur egun ere ez. Izan ere, gauza asko murriztu zituzten Gizarte Segurantzaren eta langileen eskubideetan. Emakumeei dagokienez, esaterako, emakume profesionalen hitz egiten dugunean, gizonen postu berean jasotzen dutena baino %30 txikiagoa den soldata jasotzen dugu gaur egun. Makiletan eta, batez ere, ehungintzako makiletan dauden gehienak emakumeak dira. Emakumeen analfabetismoa gizonena baino handiagoa da, Arenasen 20 urteko gobernuaren ondorioz. Garai hartan, pentsioak pribatizatu zituzten, gure sistema pribatizatu zuten. Beraz, batez beste, emakumeen bizi-itxaropena gizonena baino sei urte luzeagoa den arren, kalitatea ez da ona. Herentzia horiek utzi zizkiguten Arenasek ezarritako eredu neoliberalerako politikek, eta oso sustraituta daude, Estatuko aktibo gehiena pribatizatu egin zen, eta, apurka-apurka, estatu txikia bezain ahula utzi zuten. Izan ere, txikia bezain eraginkorra izan bazen, ondo egongo zen, baina txikia bezain ahula da, eta ez dauka ezer. Zorpean gaude.



## Lourdes Palacios, FMLNko diputatua (El Salvador)

Gaur egun duzuen herentzia hori guztia kontuan hartuta, zeri eman ahal izan diozue beste ikuspegi bat?

2009. urtetik aurrera, Mauricio Funesek eta FMLNk irabazi zutenean, premia larrietarako atentzioa berehalakoa izan zen, eta Krisiari Aurre Egiteko Plana sortu zen. Batetik, plan horren bidez, zenbait neurri ezarri ziren; esate baterako, estatuko edozein instantziako edozein kobrantza eten genuen, publikoa izatean, ezin delako kobratu ez osasun-unitateetan, ez ospitaleetan, ez azterketetan, ezta umeen matrikulazioan ere.

Ume gehiago joan behar ziren eskolara. Zer esan nahi zuen horrek? Behar besteko familia-baldintzak ere sortu behar zirela, umeak eskolan egoteko eta handik kanpo lanean ez aritzeko. Hori dela eta, oinetakoak, uniformea eta eskolako oinarrizko materialak eman behar genizkien, umeak eskolan egon zitezen. Egunerok, otordu bat egingo zuten, eta baso bat esne emango zitzaaien. Horra hor Hezkuntza Ministeriotik entzundako eta Errepublikako presidenteordeak, Hezkuntzako ministroak, zuzendutako “Vaso de leche” saioa. Horren guztiaren ondorioz, honako hauxe esan zuen jendeak: “uniformean 18-20 dolar gastatzen nituenenez, bene-benetan igartzen da”. Berehalako neurriak izan ziren.

Era berean, berehalako beste neurri bat ere ezarri zen, estatistiken arabera tipifikatutako txirotasun latz-latzeko udalerriei baliabideak transferitzeko. Beraz, adinekoei 100 dolar ematen zaizkie bi hilean behin, gutxienekoa eduki dezaten. Era berean, aurreko bi urteetan, dirulaguntza edo babesak ere eman zaie nekazari txiki eta ertainei, erentzarako haziak eta ongarria eduki ditzaten eta jende guztiak indabak zein artoa erein ditzan.

Horixe bera izan zen krisiari aurre egiteko plana, eta premia larrienei eman zitzaien erantzuna: Osasun Ministerioari sendagaien erosketarako dirua esleitu zitzaion, sistema publikoan atenditu beharrekoak atenditu ahal izateko.

Krisiari aurre egiteko planaz gain, gobernu programan epe luzeagorako planak ere agertzen dira. Bertan, hain zuzen ere, honako hauxe aztertu behar da: nola antolatu osasun-sistema, nola integratu eta nola atenditu lehen mailako osasun-atentziotik ospitaleetako hirugarren mailara. Zenbait neurri zehaztu dira, inbertitzeko, lan-iturriak sortzeko, baztertuenei herrial-

dean bertan aukerak emateko eta AEBetarako migrazioa murrizteko. Dena dela, epe luzerako ahaleginak direla esan beharra dago.

Horrez gain, beste neurri asko ere badaude. Biltzar Legegiletik, ahal dugun guztia egin dugu, ekonomiaren dinamismoaren sustapenerako legeak onartzeko. Orain, FMLNk berak ere zerga-eraldaketarako prozesua jarri du abian, urtean diru-sarrerak gehien dituztenek eraginkortasunez eta apurka-apurka euren diru-sarrerak arabera ordaindu dezaten, diru-sarrera ertainak eta txikiagoak dituen jendea alde batera utzita. Hain zuzen ere, ez dugu jende hori kontuan hartuko, orain arte pribilegio asko izan dituztenek ordaindu behar dutelako zorra.

Antza denez, eskualdeko errenta txikiena kobratzen dugu. Errentaren gaineko %13ko zerga ordaintzen ari gara, eta mundu guztiak gauza bera ordaintzen du. Gauza sakonagoak, neurri sakonagoak direnez, kezka horiek gaintitzen baditugu eta nekazaritzako zein hirietako ekoizpen-jarduera suspertzen badugu, lanpostuak eta diru-sarrerak ere sortu ahal izango dira, unibertsitatetik irteten diren gazteentzat eta beste jende askorentzat. Bi urte hauetan, langabezia-maila murriztu denez, zerbait egiten ari gara arlo horretatik.



## Lourdes Palacios, FMLNko diputatua (El Salvador)

Ikuspegi ezkertiarretik, zenbait gai daude; esate baterako, marak eta emakumeen aurkako indarkeria. Arazo horiei aurre egiteko bidea poliziala izan daiteke, baina politika publikoak ere. Ez dakit FMLN eta ikuspegi ezkertiarretik gauzak beste era batera egiten ari diren edo benetan zaila den gatazka sozialari aurre egiteko moduren bat aurkitzea.

Gobernuaren proposamenak dira, baina guk Biltzar Legegiletik ezarri ditugu egoera horri aurre egiteko. Nire ustez, emakumeei buruz hitz eginez gero, behar den moduko aukera eduki dugu, legealdi honetan bi lege garrantzitsu onartu ditugulako: Emakumeen Aurkako Era Guztietako Indarkeriei Aurre Egiteko Legea eta Berdintasunari buruzko Legea. Euren bidez, politika publikorako baldintzak sortzen ari gara, eta gobernuak berak ezarri beharko ditu. Dena dela, beste zerbait ere egin dugu, zenbait jarraibide eman dizkiogulako Ogasun Ministerioari, Nazioko Aurrekontu Orokorrean bi lege horien betearazpenerako zuzkidurak kontuan hartu daitezzen, emakumeen aurkako indarkeria murriztea dutelako helburu. Horrez gain, behar besteko baldintzak ere sortu ditugu, emakumeek euren gaitasunak handiagotu ditzaten eta herrialdean bertan bizi-baldintza hobekiak eduki ditzaten. Aukera hori emakumeontzat baino ez da, baina gizarte osoarentzat ere bai. Segurtasun publikoaren gaia behar bezala jorratzeko aukerarik ere badago, orain arte ez delako halakorik gertatu. Orain arte, gertatutakoa gertatu da, eta esku gogorreko politika ezarri zen bere garaian, nahiz eta indarkeria murriztea lortu ez zuten eta arazoa sakon-sakon aztertu ez zuten. Orain, aukera berri hori dugu gobernutik eta Biltzar Legegiletik.

Une honetan ere, oso kontuan daukagu datorren urteko martxoan diputatuak eta alkateak aukeratzeko hauteskundeak egingo direla. Beraz, Biltzarra nola eratzen den ikusi beharko da, horrelako neurri asko egia bihurtu daitezzen.

Amaitzeko, Salvador Erdialdeko Amerikan dagoenez, gainera azalduko diguzu nolako ondorioak izan dituzten Bake Hitzarmenek Salvadorren, baina Guatemalan eta Nikaraguan ere bai. Erdialdeko Amerikako gaur egungo egoera azalduko diguzu?

Nire ustez, Bake Hitzarmenak sinatu zirenetik eskualdean, hau da, Nikaraguan, Guatemalan eta Salvadorren, herrialdeek behar besteko ereduak dute, zuzenbide-estatua, zuzenbide-estatu demokratikoa eratzeko. Izan ere, orain, instituzionaltasuna osatu egin ahal izan da, eta bertan zeresan handia izan du Salvadorrek, izena baino ez zeukaten eremuak abian jarri ahal izateko.

Herrialde bakoitzeko presidentek Erdialdeko Amerikako Integrazio Sistema, SICAn, daude. Azken seihilekoan, presidentetza Salvadorren esku egon da, eta, urrats horretan, eskualderako neurri garrantzitsuei buruz eztabaidatu dugu; esate baterako, segurtasun-arlorako hitzarmenak izan ditugu hizpide, baina arlo ekonomikokoak ere bai. Nire ustez, eremu horiek behar beste nabarmendu behar dira. Sistema horretan, Salvadorko presidentetzak proposamen asko egin ditu, eskualdeko arazoak jorratzeko.

Era berean, oso garrantzitsua ere bada herrialde bakoitzean hauteskundeak egiteko aukera edukitzea eta euren helburua demokrazia sendotzea izatea. Horiexek ere badira abantailak. 2009. urtean, egoera tamalgarria sortu zen Hondurasen estatu-kolpea eman zutenean, baina Salvadorrek ez zuen onetsi eta berehala salatu zuen estatu-kolpea ez zela. Bestetik, guk geuk ere gauza bera egin genuen alderdi moduan, gure ustez gauzak ez direlako horrela egin behar. Iraganean halaxe egiten zituzten gauzak, baina ezin da inon halakorik onartu. Nolanahi ere, horretan pentsatzen jarraitzen duten buruak eta mehatxuak daudela ikusten dugu: indarraren bidez iritsi nahi dute boterera.

Oro har, zailtasunak zailtasun, eskualdeak aurrera egin du, bere ezaugarriak eta aukerak kontuan hartuta. Prozesu demokratikoak indartzen jarraitu behar dugu. Nikaraguako hauteskundeetako bozketen ehunekoa oso handia izan zen, eta oso kezagarria da komunikabideetan gai horri buruzko ezer ez esatea. Asteburu berean, Guatemalako hauteskundeak ere izan ziren, eta, partaidetza ehunekoa oso txikia izan zen arren, partaidetzazkoak eta oso demokratikoak izan zirela jakinarazi zuten. Berrito ere, hortxe dago eragin me-



diatikoa, nazio-mailakoa zein eskualdekoa. Betiko moduan, batzuk gaitzesten dituzte, eta besteak onartzen dituzte. Nire iritziz, eskualdeak formula hori baztertu beharko luke. Oso eskualde txikia da, oso antzeko ezaugarriak ditugu eta eskualdeko gune instituzional horiek sendotu behar ditugu.

### Besterik esan nahi?

Nire ustez, beste ahalegin bat ere egin beharra dago, herriz herriko harremanak ere sendotzen jarraitu ahal izateko. Erdialdeko herriek ere gauza bera egin behar dugu. Gaur egun, munduko herri guztiak daude krisian, eta, globalizazioak zein kapitalaren transnacionalizazioak guztiongan antzeko eragina duela kontuan hartuta, harremanetan sakontzen jarraitu behar dugu. Harreman horien ondorioz, mundu multipolarerantz goaz, gizakien etorkizuna ez delako bizpahiruren erabakiaren menpe egon behar. Hori dela eta, oso garrantzitsua da esperientziak partekatzea, egunotan hementxe egin dugun bezala. Herriz herri bat egiten badugu, bide beretik joango gara, eta, bide horretan, guztiok nahi ditugun bakea zein justizia lortuko ditugu. Hori guztiori eratzeko, oso lagungarria izango da guztiok hain komunikatuta egotea eta munduko alde bateko zein besteko albisteen berri edukitzea. Alde horretatik lan egiten jarraitu behar dugu, eta eskerrak eman nahi dizkiot Mundubat-i, bilera hauek antolatu dituelako eta topagune hauek eskaini dizkigulako, harreman horren eraketarako erronka hori landu ahal izateko.





## Enrique Corral, Guillermo Toriello fundazioko zuzendaria (Guatemala)

### Nola azalduko zenuke Guillermo Toriello Fundazioaren lana?

Guillermo Toriello Fundazioa Bake Hitzarmenen garaian (1996) sortu zen, gerrillariei laneratzeko eta gizarteratzen laguntzeko asmoz. Dena dela, gerrillako kideei ez ezik, euren familiei eta erkidegoei laguntzea ere bazen helburua.

Fundazioak errefuxiatuekin, erresistentziako biztanleekin eta, batez ere, erkidego indigenekin lan egin zuen, gatazkan parte hartu zuten biztanle gehienak indigenak zirelako.

Bake Hitzarmenak sinatzean hasi ginen lanean. Garai hartan, birkokatze eta gizarteratzeko prozesua hasi zen, hau da, erkidegoekin landu dugun partaidetzako eta tokian tokiko garapen bateraturako politika jarri zen abian. Horren bidez, aukera gutxien izan dituzten eragileei lagundu diegu, batez ere; emakumeei eta tokian tokiko liderrei, esaterako. Tokian tokitik, behar besteko eragina eduki nahi dugu, legeria hobetzeko, politika sozialak deszentralizatzeko eta giza eskubideak zein herri indigenak errespetatzeko. Erkidego horien eskubideen alde lan egiten dugu, hain zuzen ere.

### Ibilbide horretan, zer aldatu da? Fundazioaren bilakaeraren laburpena egingo diguzu, mesedez?

Bake Hitzarmenen ostean, biztanle desmobilizatuei esker sortu ginen, erkidegoei hitza emateko, garapen-prozesuetan inplikaturako egon behar ziren eragileak zirelako. Izan ere, Bake Hitzarmenen ondoren, egoera berrian gizarteratzeko hitzarmena oso zehatza da gerran egon ziren biztanleentzat. Maila sozio-ekonomikoan, Bake Hitzarmenak egiturazkoak dira nekazaritzaren, gai sozialen eta eskubideen arloan. Hain zuzen ere, guzti-guztiok gaude inplikaturako, adinari, sexuari, lidergoei... begira inolako desberdintasunik egin gabe. Gaur egun, beraz, lehen baino askoz aukera gehiago gaude.

Orain, badugu baliabide naturalen defentsaz, azpiegiturez eta zerbitzuez hitz egiteko. Guztiontzat dira. Alde horretatik, orain aniztasunetik eta lurralde-aniztasunaren zein beste aniztasun batzuen errespetutik lantzen ditugu toki-garapenerako prozesuak, baina, beti-beti, Bake Hitzarmenaren esparru orokorrean. Aurrera egin dugu garapenean. Fundazioa herrialdeko zortzi lurraldetan dago gaur egun. Horrez gain, hirian ere bagaude, baina, batez ere, jarduera politiko eta administratiboa garatzeko.

### Gaur egun, zer helburu dituzue epe laburrari begira?

Zenbait ekimen sustatzen ari gara, erkidego eta familientzako diru-sarrerak sortzeko. Arazo asko konpondu behar dira, eta, horretarako, euren diru-sarrerak edo ekoizpena hobetu behar dituzte. Bestetik, erkidegoko zerbitzuak, azpiegiturak, ingurunea eta lurraldea ere hobetzen ari gara, klima-aldaketaren eragin handiena jasaten duten hamar herrialdeen artean dagoelako Guatemala: ekaitzak, lehorteak... Hori guztiori erkidegoetako azpiegituren kalterako denez, erkidegoetako habitata sustatzeko eta erkidegoak eurak berreraikitze programari jarri dugu abian, landa-ingurune garapena sustatzen dugu, lurraldearen segurtasun juridikoa eskuratzen eta lurrak kudeatzen laguntzen diegu... Era berean, oroimen historikoa eta gatazkaren sustraiak zein ondorioak ere jorrotzen ditugu. Lehen, borrokalariak ginen, baina, orain, herritarren partaidetza sustatu nahi dugu, eta emakume indigenentzako eremuak sortu nahi ditugu.

### Zuon ustez, zer laguntza da ezinbestekoa zuon eguneroko lanari begira?

Geure jatorriagatik, baliabideak lortzeko aukera izan dugu. Europar Batasunak bere ekarpenak egiten ditu neurri handiagoan edo txikiagoan. Borrokatu egiten gara, estatuak aurrekontuak egin ditzan eta etxebizitza-politiketarako fondo publikoak eman diezazkiguten; esate baterako, erkidegoko habitata sustatzekoak. Horrez gain, estatu espainoleko zenbait erkidegoren, Mundubat erakunde kidearen eta gurekin lan egiten duten beste erakunde batzuen (Esku Batuak) lankidetzaren deszentralizatua ere badugu.

Guretzat lehentasunezkoa da garapen nazionalerako programen bidez konpondu ezin daitezkeen arazoei aurre egitea. Txirotasuna handi-handia da. Iraunkortasuna sortzen duen guztiaren alde gaude, eta erkidegoen giza gaitasunak suspertu nahi ditugu, euren kabuz kudeatzeko aukera eduki dezaten. Erkidegoei arlo horretan laguntzen diegu, baina larrialdiak daudenean ere bai. Azken hileotan, laguntzarako eta larrialdietarako programak jarri behar izan ditugu abian arazo sozialengatik. Orain dela gutxi, hamalau erkidego kanporatu dituzte nahitaez, legezko gutxieneko prozedurarik bete gabe.



## Enrique Corral, Guillermo Toriello fundazioko zuzendaria (Guatemala)

### Zergatik kanporatu dituzte?

Indar zapaltzaileek kanporatu dituzte, lurratik lehian ari den onibarjabeak eskatuta. Hamalau erkidego. Emakume haurdunak, umeak, euriteko klima latzak... Halakoetan, beraz, garapena sustatu ez ezik, larrialdietarako laguntza ere eman behar dugu.

Ia-ia ezinezkoa da larrialdien lerroa ez lantzea, horrelako egoerak etengabe gertatzen direlako, hondamendi naturalengatik edo zapalkuntza politikoagatik. Alde horretatik, ume eta biztanle ahulentzako premiazko laguntza humanitarioa ere bada garrantzitsua. Hala ere, partaidetzazko garapen-prozesuak dira fundazioaren ohiko zeregina.

### Zer esan dezakezu eguneroko lanean dituzuen oztopoei buruz?

Asko eta asko dira. Lehenengo eta behin, nahiz eta Guatemalan bakea sinatu zen, oraindik ere oso-oso gatazkatsua da behar den moduko baldintzak eratzea, arazoak konpontzeko lana harmoniatsua bezain egonkorra izan dadin.

Gatazka horrek toki-garapenerako prozesuak ezkututzen ditu, gainera. Politika ofizialak makro garapena du helburu, eta transnazional handiei laguntzen die, estatuarentzako kapital-irabaziak sortzeko asmoz. Batzuetan, gainera, baliteke enpresa horiek eta estatuak erkidegoetan bertan ezer gutxi uztea erantzukizun sozial moduan.

Guatemalako gobernuaren garapen-ikuspegiaren arabera, transnazionalak laguntzea da helburua eta ez toki-garapena sustatzea, nahiz eta azkenean transnazionalak baino garrantzitsuagoa izan. Beraz, ez dago benetako laguntzarik, ez dago erkidegoen ongizatea bultzatzeko moduko programarik eta geuri ere ez digute laguntzen, hori guztiori konpentsatzeko. Horrez gain, eskubideen defentsarekin lotutako edozein borrokaren inguruko aurreiritziak eta bereizkeria nagusi dira oraindik: elikadurarako eskubidea, osasunerako eskubidea, etxebizitzarako eskubidea, mobilizatze eskubidea, antolatze eskubidea... Hori guztiori mehatxagarria da boterearentzat, babestuta egon beharko litzatekeen arren. Badirudi erkidegoek estatuari kendu nahi diotela boterea, eta, horren ondorioz, are presio politiko handiagoa egiten diete erkidego askori. Kanporaketak eta mehatxu argiak daudenez, oraindik ere hainbat muga daude, askatasunez jarduteko, mobilizatze edo segurtasuna bermatzeko.

Gero, gatazkaren osteko egoera zehatzago honetan, legezko kanpoko krimenak ugaritu dira, eta delitugile txikien sareetan ere izan du eragina. Hori dela eta, oso deskonposizio sozial larria gertatu da, ekintzaileen, instituzioen zein erkidegoetako liderren segurtasuna dago mehatxupearan eta emakume zein gizonen mobilizazioa dago mugatuta.

Bestetik, gatazka armatuaren osteko adiskidantza-prozesuak geldiro-geldiro doaz. Enpresa bat iristen da, eta erkidegoa banatu egiten da. Politikari bat helitzen da, eta erkidegoa banatu egiten da. Erlinjoso fundamentalista bat iristen da, eta erkidegoa banatu egiten da. Sare soziala berreratzeko prozesuak eta iraganeko banaketa oso-oso kontuan hartzen direnez, oso-oso zaila da erkidegoa integratzea eta sare sozial zein politiko hori eratzea.

Korrante progresistagoetatik gatozenok askoz zailtasun handiagoak ditugu lan egitean, alderdi ofizialeetatik hurbil dauden erakundeak baino edo politikarrien enpresa moduan era artifizialean sortutakoak baino.

### Azken urteotan, zein izan da Guatemalako testuinguru soziala?

Historia apur bat egitearren, bake-negoziaketetan, gatazkan inplikaturako kultura eta ikuskera desberdinak hartu behar izan ziren kontuan. Inoiz ez zitzaigun bururatu gureak ez bezalako interesak zituen militar batekin edo politikari batekin hitz egin beharko genuenik. Hori dela eta, gizarteko zenbait eragilerekin hitz egin behar izan genuen, eta, horrela, bakea sinatu aurretik geneuzkan oztopoak hautsi ahal izan genituen.

Bigarrenez, horren guztiorren ondorioz ere, gatazka armatua desaktibatua ahal izan zen, eta oso izan zen, gogorra izan bazen ere. Dena dela, arazoak ere egon dira, etsigarria edo zaila izan zelako eraldatu gabeko gizartera itzuli behar izatea, oraindik ere bertan gure borrokaren helburu izandako gaitz, kontraesan eta egiturazko arazo berberak daudelako indarrean. Gizarte hori aldatzeko asmoz zenbait metodoaren bitartez borrokatzea etengabeko frustrazioa izan da, nahiz eta batzuetan zerbait lortu dugun eta, horren ondorioz, aurrera egiteko itxaropena eduki dugun.

Beraz, zenbait askatasun sozial eta eskubide erabili ditzakegu orain, horretarako baldintzak oso mugatuak badira ere. Hori dela eta, hasi ginenean ez zeuden beste bide batzuk daudela esan behar dugu: bide politikoak, sozialak, mediatikoak, mobilizazio sozialerakoak... Hori guztiori lortu egin dugu, eta zilegizkoa da. Presiopean gaude, bai, baina hortxe gaude.



## Enrique Corral, Guillermo Toriello fundazioko zuzendaria (Guatemala)

**Egia da Guatemalak gatazka sozial handiak dituela, indarkeria-arazo handiak dituela marekin eta feminizidioak daudela. Zein da gaur egungo testuingurua?**

Gaur egun, ez dago gerra politiko-militarrik, gaur egungo egoera soziala oso desberdina da. Edonola ere, argitu egin nahi nuke indarkeria zenbait eskalatan ugaritu dela, narkotrafikorako erabiltzen den egitura oso-oso ondo antolatuta dagoelako. Izan ere, ohi ez bezala, auzoetara eta lan-ingurunera ere iristen da. Dena dela, horrek ez du zerikusi handirik Bake Hitzarmenak ez betetzeko joerarekin, segurtasunaren, justiziaren eta giza eskubideen arloan ez delako ezertxo ere bete eta estatuaren eraldaketa bera ere garaiz egin ez zelako. Horren ondorioz, oso ahulezia handia sortu da, eta krimen antolatua inolako arazorik finkatu da bertan. Orain, deskonposizio soziala da nagusi, eta, gerrillaren eskutik barik, estatuaren eskutik matxinoen aurka sustatutako balioen bidez adierazten da askotan. Hori dela eta, estatua ez da indartzen, eta, esate baterako, indarkeria matxista, feminizidioa... azaltzen dira.

**Zein izan da emakumeen zeregina, gatazka armatuaren garaian nahiz bakearen eraketan?**

Lehen-lehen lerroan egon dira. Gatazka armatuaren sasoian, fronte militarretan geneuzkan emakumeen kopurua %20koa zen. Era berean, emakumeen %25 zeuden, gerrillari berari laguntzeko eta hornitzeko egituretan. Hori dela eta, euren zeresana nabari-nabaria izan da, baina, batez ere, gizarte eta erkidego arloko sare osoan.

Gatazkaren salaketan bertan ere, Rigoberta Menchú Nobel sariduna bera ere dinamika horietatik guztietatik sortu zen, hau da, eskubide zibilen defentsaren bidez boterea lortzeko borrokatik zein borroka sozialetik. Gero, gatazka armatuaren ostean, emakumeen lidergoa sendo-sendoa izan da, aldarrikape-nak bultzatzeko orduan.

Emakumeen erakunde asko presiopean daude, oso-oso baztertuta daude. Hala ere, lehen-lehen lerroan daude, instituzioetan berdintasunaren alde borrokatzeko orduan eta gizonek bezala sortzeko abagunea eskuratzeko orduan. Esate baterako, lurrerako eskubidea lortu nahi dute, orain arte gizonen

izenean baino ez zegoelako; etxebizitzarako eskubidea eskuratu nahi dute... Bakea sinatu ondoren, zenbait aurrerapauso eman eta lorpenak egon dira, zailtasunak zailtasun eta presioa presio.

**Nola ikusten duzu Erdialdeko Amerika?**

Hamarkadaka aztertuz gero, egia da Erdialdeko Amerikako herriek eskubideak eta askatasunak lortu dituztela, euren ahotsa entzunarazi dutela, zenbait tresna sortu dituztela... Nire ustez, bide horretan, Guatemalan baino eremu politiko gehiago daude Salvadorren eta Nikaraguan. Nolanahi ere, giza garapenaren indizeak aztertuz gero, aurrerapenak daude, baina geldiro-geldiro. Lurren pilaketa aztertuz gero, gero eta lur gehiago daude hazienda handien esku. Egitura sozio-ekonomikoei dagokienez, oso-oso antzekoak dira Erdialdeko Amerika osoan. Hau da, zenbait sistemaren bidez, herriek aurrera egitea lortu dute: batzuek, iraultzaren bitartez; beste batzuek, hauteskunde bidez; eta, beste batzuek, borroka sozialaren bitartez. Izan ere, zailtasunak zailtasun, badirudi azkenean aurrera doala.

**Amaitzeko, besterik esan nahi bazenu...**

Aspaldidanik, Mundubat-ekin batera lan egiten dugu, baina gure lankidetzak ez dago ohiko menderakuntzazko harremanetan oinarrituta, aliantzak sortu eta lan-lerroak zehazten ditugulako. Mexikon errefuxiatu geunden garaitik, oso ondo moldatu ginen, eta, aurrerantzean ere, horrelaxe jarraituko dugulakoan gaude, erkidegoentzako ongizate-aurreikuspenak sortzen, alegia.





## Sara Elisa Rosales (Honduras)

### Emakumeak Erresistentzian Mugimenduko partaide eta Herri erresistentzia fronte nazionalako koordinakundeko finantza arduraduna

#### Emakumeak Erresistentzian Mugimenduko partaide eta Herri erresistentzia fronte nazionalako koordinakundeko finantza arduraduna

#### Nola daude integratuta emakumeak Herri Erresistentziarako Fronte Nazionalan?

Emakumeok estatu-kolpearen egunean bertan integratu ginen Herri Erresistentziarako Fronte Nazionalan, 2009ko ekainaren 28an, hain zuzen ere. Harrezkero, gero eta emakume gehiago gaude. FNRPN egiten ditugun mobilizazio eta jarduera gehienetan, emakumeon agerpena oso handia da, eta, askotan, gehiengo gara.

Indarrak metatzeko prozesuaren ondorioz, badira urte asko emakumeok agerpena dugula zenbait antolamendu-gunetan: mugimendu sindikalak, ingurumenaren aldeko mugimenduak, jatorrizko herrien eta afroinordekoen aldeko mugimenduak, sexu-aniztasuneko mugimenduak... Dena dela, estatu-kolpea eman zenean, pertsona asko eta asko erori ziren, baita zenbait mugimendutako kideak ere, nahiz eta lehenago zeukaten diskurtsoa ezkertiarra, progresista eta iraultzailea omen zen edo nolabaiteko kezka soziala omen zuten, behintzat. Kolpeaz geroztik, ordea, honako hauexek guztiek bertan behera utzi zuten diskurtso hori: kardinala, artzain ebanjelikoak, zenbait alderdi politikotako buruzagiak (Batasun Demokratikokoa, esaterako)..., eta, orain, estatu-kolpearen jarraipenerako erregimen horretan parte hartzen dute.

Hori dela eta, emakumeok argi eta garbi daukagu zenbait mugimendutako pertsona horiek aldaketaren alde ez daudela, herriaren eskubideen alde ez daudela eta, horren ondorioz, emakumeon eskubideen alde ere ez daudela. Beraz, emakumeok irten egin gara, eta FNRPrekin bat egin dugu. Izan ere, lehen, Hondurasko emakume gehienak ez zeuden antolatuta, ohiko mugimenduetan baino ez zeuden antolatuta (sindikatuak eta magistratuak). Hala ere, emakumeen mugimendua eta mugimendu feminista beti izan dira txikiak herrialdean, eta, era berean, ahulak ere izan gara, ezin izan dugulako emakumeen era guztietako adierazpideak feministekin bateratu. Horren ondorioz, are ahulagoa da borroka.

Beraz, ehun milaka emakumeren eta antolatu gabeko gizonen erreferentziatzako erakundea da FNRPN. Herrialdean antolatutako mugimendu sindikalaren zerena %6koa baino ez da, herrialde nekazaria delako, batez ere. Bertan, hain zuzen ere, ekoizpen txikiko enpresa familiarrak eta mikroenpresak dira nagusi, eta, eurentatik, %60 zuzentzen dituzte emakumeek. Horregatik, emakumeok FNRPN antolatzea erabaki genuen.

#### Nolako zeregina du Erresistentziako Emakumeen Taldeak FNRPN bertan?

Emakumeok nagusi gara mobilizazioetan eta erresistentzia moduan egiten ditugun jarduera guztietan, baina ez gara nagusi FNRPNko erabaki-egituretan.

Gaur egun, Fronteko Koordinazio Nazionalak 41 kide ditu, eta departamentu guztietatik zein fronteko kide diren zenbait erakunde sozialetatik datoz. Hala ere, 41 lagun horietatik, 12 baino ez gara emakumeak. Fronteko Batzorde Politikoa, 14 lagun daude, eta, eurentatik, 3 baino ez dira emakumeak. FNRPN, zenbait gai jorrazteko 11 lantalde daude, eta, maila horretan, emakumeak nagusi dira, inolako zalantzarik gabe, maila horretan garatzen delako FNRPN lan gogorra. Departamentuen eta udalerrien mailan ere, emakumezko kide asko daude, baina herrialdeko 18 departamentuetako koordinatzaileak gizonak dira, ordea. Emakumezko kide bakarra dago, Cortesko Departamentuko koordinatzailea. Tamainari begira, bigarren departamentu handiena da; eta lehenengoa, arlo ekonomikoari begira, gure herrialdeko industria gehienak bertan daudelako. Emakumeontzat, oso garrantzitsua da departamentu horretako ordezkaria emakumea izatea eta, bertatik, emakumeen agenda nahiz genero-berdintasuna sustatzea.

FNRPNk berak zenbait gune ditu; esate baterako, Erresistentziako Gazteen Plataforma, Magisterioa, Giza Eskubideen Plataforma... Erresistentziako Aitona-amonak ere baditugu antolatuta! Beraz, emakumeentzako gunea ere badago FNRPN bertan. Horrela, Erresistentziako Emakumeen inguruko guztia antolatzen dugu, eta talde horrek zenbait adierazpide ditu zenbait departamentutan: emakume kristau, katoliko eta protestanteak, profesionalak, etxeko andreak, emakume mikroenpresariak, artistak, intelektualak... Emakume guztion artean, erresistentziako emakumeen agenda antolatzen ari gara, eta



## Sara Elisa Rosales (Honduras)

Emakumeak Erresistentzian Mugimenduko partaide eta Herri erresistentzia fronte nazionalako koordinakundeko finantza arduraduna

prestakuntza politikorako zein emakumeen lidergoetarako antolaera-prozesuak bultzatzen ari gara, oso garrantzitsua delako. Horrela, bada, emakumezko kide gehiagok lortuko dute jabekuntza, eta elkarrekin egin ahal izango dugu aurrera, baita emakumeen borroka zein eskariak bidezkoak direla eta aurrera egin behar dugula ulertu duten gizonezko kideekin ere. Hartara, Erresistentziako Emakumeen taldeak eratzen ditugu departamentu nahiz udalerrietan, eta, emakumeontzako eremu zehatzak diren arren, FNRPrez arrazoiak eta lerro estrategikoaren barruan daude. Izan ere, herrialdearen birsorkuntza-aren aldeko borrokan gaude, eta FNRPrez hauteskunde-partaidetza sustatzen dugu benetako alternatiba politiko moduan. Bertan, gainera, emakume moduan egiten dugu geure ekarpena, eta hori oso garrantzitsua da, Hondurasko hautesleek %53 baino gehiago emakumeak gaituz kontuan hartuta. Kontuan hartu beharrekoa da, bai.

Hori dela eta, emakumeok gogor lan egiten dugu, eta honako hauxe lortzeko mezua daramagu: aldaketa, birsorkuntza, genero-berdintasuna, gizon eta emakumeen eskubide-berdintasuna, lidergoaren sendotasuna, emakumeen era guztietako eskubideen urraketa larria, emakumeen hilketa ugariak, feminizidioa... Hori guztiori egiten badugu, beraz, Erresistentziako Emakumeen agenda lekuratu ahal izango dugu FNRPko eremu handi horretan. Horiek horrela, agerpen eta indar handiagoa daukagu, ez gara talde txikiak eta herrialdean borroka sozial zein politikorako daukagun eremuan bat egiten dugu.



Lehen esan diguzunez, zuon lan-ardatzetako emakumeen antolaera, partaidetza politikoa eta emakumeen lidergoak sendotzea da. Mesedez, labor-labor azalduko diguzu beste lan-ardatzik duzuen Erresistentziako Emakumeen talde moduan edo zein diren Erresistentziako Emakumeen agenda horretako gai nagusiak?

Hona hemen gure lan-ardatzak: antolamendua, prestakuntza politikoa, mobilizazioa, komunikazioa eta lidergoa. FNRPri dagokionez, gure ustez komunikazioa eta prestakuntza emakumeen funtsezko lan-ardatzak dira, emakumeek FNRPrez duten lidergo guztia antzeman, indartu eta sustatu egin behar dugulako, bi eremu horietan parte hartu ahal izateko. Lehenengo eta behin, Herri Erresistentziarako Fronte Nazional moduan, gure borrokarako gunea da-eta; eta, bigarren, Askatasuna eta Birsorkuntza moduan, FNRPk sortutako alderdi politikoa da-eta. Izan ere, bere estatutuak kapitulu oso bat dago genero-berdintasunari buruz, emakumeek FNRPko eta Libre alderdiko erabaki-guneetan daukaten partaidetza hobetzeko. Era berean, 72. artikularen arabera ere, emakumeen partaidetza-kuota %50ekoa izan behar da gutxienez, hautetsi daitezkeen herri-hautespeneko kargu guztietan: alkateak, alkateordeak, erregidoreak eta diputatuak. Horrez gain, irabazi nahi ditugun hauteskundeak egiten direnean, estatuko gerentziako karguetan genero-berdintasuna egongo delakoan gaude, hau da, idazkaritzetan, ministerioetan eta beste instituzio batzuetan. Funtsean, horietan dira gure lan-ardatzak.

Lehen aipatu duzunez, FNRPrez oinarria zabala da. Zer egiten duzue hain mugimendu zabala mugimendu sozial bakar batean eta alderdi politiko bakar batean elkartzeko eta antolatzeko?

Ez da lan erraza. Oso-oso nekeza da zenbait arrazoiengatik: FNRPrez antolaera anitza da, taldeek agenda bana dutelako; eta araudi nagusia patriarkala delako, herrialdeko gainerako adierazpideetan bezala. Horretan, FNRP bera ez da desberdina.

Giza eskubideen aldeko borroka gaia lantzeko orduan, emakumeok feminizidioen gaia hartzen dugu kontuan, baita emakume eta herri moduan ditugun eskubide guztien urraketak ere; eta, ikuspegi horretatik, emakumeen agenda sustatu nahi dugu. Horiek horrela, guztiok dakigunez, 14 emakume kide hil dituzte esta-



## Sara Elisa Rosales (Honduras)

Emakumeak Erresistentzian Mugimenduko partaide eta Herri erresistentzia fronte nazionalako koordinakundeko finantza arduraduna

tu-kolpeaz geroztik. Bestetik, Kongresu Nazionalak hurrengo eguneko pilularen erabilera, banaketa eta merkaturaketa debekatzeko dekretua onartu duenez, gure eskubide sexual eta ugalketarako eskubideen aurkako kolpe gogor-gogorra izan da. Gainera, buru-belarri borrokatu gara, bigarren hezkuntzako ikastetxeetan hezkuntza sexualerako erabiltzen zituzten gidak kendu dituztelako. Horrek ez du esan nahi gai horiek adostasun orokorrekoak direnik, baina, Erresistentziako Emakumeen talde moduan, erronka horiek lantzen ari gara, eta argi eta garbi daukagu apurka-apurka egin behar dugula aurrera. Bai, hauteskundeetan parekotasuna edukiko dugu, FNRP udalerrietan eta departamentuetan zuzentzen dituzten taldeak eratzeko, baina departamentu batzuetan, ez guztietan. Aldaketa hori, ordea, oso garrantzitsua da, gizonezko kideek ulertu egin behar dutelako emakumeok ere eskubideak ditugula, mobilizazioetan parte hartzeko bakarrik ez gaudela, Erresistentziako Emakumeen talde moduan erabakietan zein gure lidergoaren ageritasunean ere izan behar dugula zeresana eta gure borrokan ere berezitasunak daudela.

Nire ustez, gai horietan guztietan egin dugu aurrera. Hala ere, beti ez da hori argitasun zein indar berberaz ikusten. Izan ere, FNRP hain zabala eta handia denez, oso zaila da bi urtetan bi mila urteko patriarkatua gainditzea. Dena dela, egia ere bada gero eta gizonezko kide gehiagok ikusten gaituztela beste begi batzuek, gure lana errespetatzen dutela, antolatuta gaudela ikusten dutela, taldetxo sakabana-tuak ez garela eta eurekin batera borrokatzen garen emakumeak garela. Hain zuzen ere, herrialde desberdina lortu nahi dugu, emakumeen eskubideak errespetatu daitezzen eta Biltzar Konstituziogileak eta alderdi berriak emakume moduan daukagun agenda kontuan hartu dezaten.

Oso-oso kontuan hartu behar da FNRPn dauden emakume gehienak feministak ez direla. Beraz, apurka-apurka sartu behar ditugu diskurtso eta proposamen horiek, erresistentziako emakume zein gizonek ere apurka-apurka barneratu beharko dituzte. Oso erronka handia eta geldoa da, are gehiago baliabiderik ez dugula kontuan hartuta. Edonola ere, aurrera egiten, geure agenda bultzatzen eta geure borroka proposatzen jarraitu behar dugu.

Erresistentziari dagokionez, ez emakumeen talde moduan, Herri Erresistentziarako Fronte Nazional moduan baizik, bi urteotako aurrerapausoen eta etorkizun hurbileko erronken balantze txikia egingo diguzu?

Balantzea eginez gero, oso garrantzitsua da esatea zenbait batzarretan emakumeen eskubideen eta bereizkeria historikoaren gaiari buruz eztabaidatu dugula eta FNRPk patriarkatuaren aurka dagoela esatea lortu dugula. Aurrerapauso handia da benetan, eta, oraindik arazoa konpondu ez bada ere, ondo hasi gara gizonena izandako eremuan. Horri esker, gainera, badugu geure kabuz erresistentziako gizon eta emakume moduan birsortzerik, gainerakoek ulertu egin behar dute emakumeok ere eskubideak ditugula eta anitzak garela eta, azken batean, emakume moduan dugun agenda ere sustatzen dugu.

FNRP patriarkatuaren aurkakoa zela adierazitako batzarrean ere, erabaki egin zen FNRP neoliberalismoaren aurka zegoela, eredu baztertzailerik, gizatasun-gabetzailerik eta pribatizatzaile horren aurka gaudelako. BNRP bera ere oligarkiaren aurkakoa da, zapaltzen gaituzten 10 familiaren oligarkiaren eta erailtzen gaituen diktaduraren kontra ari garela borrokan. Era berean, arrazakeriaren aurka ere badago, gure herrialdean jatorrizko herriak eta afroinordekoak daudelako, FNRPko kideak direlako eta elkarrekin arrazakeriaren aurka borrokatzen garelako.

Bestetik, aurrerapausoa da emakumeok Libre alderdiko herri-karguetan parte hartzeko kuota gutxienez %50ekoa izatea, Hondurasko Emakumeentzako Aukera Berdintasunari buruzko Legean %30eko kuota aipatzen denean. Agerikoa denez, ahalegin handia egin behar da horretarako, ez delako nahikoa estatutuetan kuota hori agertzea. Izan ere, ezarri egin behar da, eta oso apustu handia da. Era berean, emakume gehiago eduki nahi ditugu Batzarreko Zuzendaritzan, FNRPko Koordinazioan, Batzorde Politikoa eta udalerririk nahiz departamentuetako egituretan. Hori dela eta, karguak urtebeterakoak direla kontuan hartuta, hurrengo batzar nazionalan, aldaketa gehiago egon beharko dira, eta emakumeen agerpena handiagoa izan beharko da.



## Sara Elisa Rosales (Honduras)

Emakumeak Erresistentzian Mugimenduko partaide eta Herri erresistentzia fronte nazionalako koordinakundeko finantza arduraduna

Beste aurrerapauso bat ere izan da gure estatuetan genero-berdintasunari buruzko kapitulua edukitzea. Hain zuzen ere, genero-nortasun eta konpromiso feminista handiagoa dugun emakumeon borroka gogorraren emaitza izan da. Gutxi gara, egia esan, baina FNRPN bertan bat egin dugu, bertatik kanpo oso-oso zaila delako eragin politikoa edukitzea. Hori guztiori nortasuna galdu gabe egi daiteke, gainera. Adibidez, ni FNRPKo Finantza Batzorde Nazionalako koordinatzailea naiz, eta jabekuntza daukat, egunero-egunero erabakiak hartzen ditudalako, eta beti-beti gizonezko kide batzuen gustukoak ez direlako. Baliabideen zati bat emakumeen borrokarako izan behar dela proposatzea berria da FNRPN bertan, baina, karguetan ez ezik, baliabideetan ere egon behar da genero-berdintasuna.

Era berean, aniztasun sexualeko taldea ere eduki behar dugu gogoan, eta FNRPKo udalerrri zein departamentuetako egituraren ere egon behar da.

Oso aurrerapauso eta erronka handiak dira Hondurasko bezalako gizarte erlijiosoan, patriarkalean, FNRPK bezalako erakunde berrian eta Libre alderdian, oraindik ere bere inskripzioa oso-osorik onartu ez duten arren.

### Zure ustez, zer erronka ditu FNRPK epe luzeari begira?

Lehenengo eta behin, Libre alderdiaren behin betiko inskripzioa lortu behar du. Modu partzialean dago onartuta, Hauteskunde Auzitegi Gorenak oztopo asko jartzen dituelako, bildutako sinaduren baliotasuna gaitzestean.

Bestetik, FNRPK bera indartu behar dugu borrokarako zilegizko tresna moduan eta erreferentziatzko herri-antolara moduan, eta nazioarteko aitortpena eduki behar dugu.

Giza eskubideen arloko erronka handia da benetan, Hondurasen giza eskubideen defendatzaileen eta FNRPKo kideen hilketa selektiboak egiten direlako.

FNRPN eta Libre alderdian genero-berdintasuna ezartzeko erronka handia ere badugu.

Bestetik, finantza-arloa ere bada erronka, baliabide finantzarioak lortu behar ditugulako teknologia edukitzeko, komunikazio-guneak ordaintzeko, geure agenda agerian jartzeko...

Azkenik, herri-biltzar nazional konstituziogile demokratikoa eta bateratzailea eratzeko da erronka handia, Errepublikako Konstituzioaren bidez emakumeen eskariak eta premiak kontuan hartu daitezzen.

### Hondurasko Testuingurua

#### Estatu-kolpetik bi urte igaro ondoren, baduzu Hondurasko zapalkuntza-egoeraz eta zigorgabetasun-mailaz hitz egiterik?

Zigorgabetasun-maila erabatekoa da. Estatu-kolpearen esparruan, 200etik gora kide hil badituzte ere, bakar batean ere ez da justiziarik egin. Ez dago salaketa non jarririk, jarraipen ez dagoelako, interesik ez dagoelako, kolpe-estatuan bizi garelako eta erabateko zigorgabetasuna nagusi delako. Beraz, herrialdea birsortu egin behar dela uste dugu. Ez du eraldaketa partzialik egin nahi, hori ez delako konponbidea. Aldaketa sakona egin nahi dugu, gizarte, genero, arraza eta aniztasun politikoaren arloko desberdintasunak desagertzeko. Horretarako, ordea, beste testuinguru bat eduki behar dugu, arazoaren sustraira joan behar gara, ez ondorioetara, epe laburrean egoera berean egongo ginatekeelako.

#### Nola bizi duzue Hondurasen inguruan dagoen nazioarteko setio mediatikoa? Hondurasko gizartean bertan ere badago setio mediatikorik?

Bai, herrialdeko bertako setio mediatikoak ikaragarria da. Bi herrialdetan bizi garelako esan daiteke: kolpisten herrialdea eta aldaketak nahi ditugunon herrialdea.

Gure herrialdean, telenobelak, futbol-partidak eta publizitate guztia ematen dituzte: erosi eta zorionsua izan. Estatuarentzat eta merkaturerentzat den eredu liberala erakusten dizute, eta zeharo ezkututzen dute herri moduan biltzar nazional konstituziogilea lortzeko garatzen ari garen borroka. Beraz, komunikabideak oligarkiaren zerbitzura daude erabat, eta, berez, FNRPK ez dauka komunikabiderik. FNRPK web orriak eta foroak eduki ditzake, baina Hondurasen gehienek ere biztanleen %8k baino ez dute Internetarako sarbiderik. Gainerako %92k, ostera, ez dute Internetarako sarbiderik, txirotasuna handi-handia delako. Hori dela eta, funtsezkoa da irratia erabiltzea, leku guztietan entzuten delako eta, komunikabide horren bitartez, sektore askotara heldu gaitzkeelako. Oraingoan, ordea, erronka baino ez da.



## Sara Elisa Rosales (Honduras)

Emakumeak Erresistentzian Mugimenduko partaide eta Herri erresistentzia fronte nazionalako koordinakundeko finantza arduraduna

Oligarkiak estatu-kolpea babestu duela eta komunikabideen jabea dela azaldu duzu. Beraz, zure ustez, zer indar kontserbadorek legitimatu dute estatu-kolpea?

Komunikabideen, lurraren... jabea den enpresa pribatua, betiko alderdi politikoak eta eurekin bat egin zuten alderdi politiko txikiak; esate baterako, Demokrazia Kristaua. Baterakuntza Demokratikoak kongresuan daukan presidenteordea, adibidez, nekazarien buruzagia zen lehenago.

### Nolakoa da transnazionalen zeresana?

Komunikazioko, agroindustriako eta makilako enpresa handietako transnazional horiek guztiek ura eta hezkuntza pribatizatu nahi dituzte, herrialdeko biodibertsitatea kontrolatu nahi dute eta orain arte estatuarena izan den guztia pribatizatu dute; esate baterako, komunikazioak, ur-hornikuntza eta energia elektrikoa, hau da, Hondurasko ekonomiako hiru ardatz estrategikoak. Orain, gainera, enpresa pribatu nazionalak hasi dira zerbitzu horiek xurgatzen transnazionalekin batera, Amerika Latinoan eredu neoliberala inposatu delako eta bere joera pribatizatzea delako. Estatu-kolpea ematean, eredu hori inposatu eta den-dena pribatizatu zezaketela uste izan zuten, baina ez dute gure pentsaera pribatizatzerik, eta, biztanleek erresistentzia bera hain barneratuta dutenez, ez dago atzera egiterik.

Halaber, enpresa horiek aholkulari militar kolonbiarrak dituzte Behe Aguan inguruan, eta erkidegoak erretzen ari dira, eskolak eta osasun-zentroak suntsitzen... Hori horrela izanik ere, hilketa selektiboak eta giza eskubideen urraketak egon arren, geure erresistentziari eusten diogu.

Urraketa horiei dagokienez, setio mediatikoa kontuan hartuta, nazioarteko erakunderen baten babesa sentitzen duzue? Nazioarteko aliantzarik daukazue?

Nazioartean eta, batez ere, geure eskualdearen, Amerika Latinoaren babesa sentitu dugu. Argentinako Kirchner presidentea bete-betean inplikatu da, Hondurasko eskubideen urraketak salatzeke orduan, baita Ekuadorko Rafael

Correa bera ere. Brasilen, Lula zegoenean, Manuel Zelaya presidente ohia hiru hilabete baino gehiago egon zen bertan erbestetatuta. Venezuelako Telesuren bidez, munduan egin ginen ezagun, baita gure borroka ere. Hondurasen, egon bazeuden, baina irten egin behar izan ziren.

Era berean, Europako eta AEBetako anaitasunezko erakundeen babesa ere eduki dugu. Gure borrokaren alde daude, eta badakite bidezkoa dela. Hala ere, babes politikoa izan da, batez ere, ez hainbeste ekonomikoa.

### Nolako zeresana dauka Manuel Zelaya Rosalesek FNRPN bertan?

Manuel Zelaya Rosales gizon polifazetikoa da, oligarkiatik dator, Hondurasko burgesiako kidea izan da, Errepublikako presidentea izan zen eta bere kargutik kendu zuten.

Bere agintaldian zehar, diskurtsoa aldatzen hasi zen, nazioarteko esparru berrietarantz ireki zuen herrialdea eta hitzarmenak sinatu zituen Hugo Chávezekin. Hori dela eta, bere aurkako kanpaina mediatiko gogorra jarri zen abian. Manuel Zelayak Petrocariberekin hitzarmenak sinatu zituenetik, erregaien formula aldatu eta euren prezioak behera egin zuen. Beraz, oso lagungarria izan zen ekoizpen txiki zein ertaintzat eta kontsumitzaileentzat, eta formula aldatzean sortutako koltxoi hori aurrekontu nazionalaren osagai moduan erabili zen. Herrialdean bertan, aldaketa handia gertatu zen. Energia elektrikoa aurrezteko milioika bonbilla iritsi ziren, eta, herriaren babesaz, ALBA bera ere sinatu zen (Ameriketarako Aliantza Bolivarianoa). Orduan, iparramerikarrak ikaratu egin zirenez, kolpea eman zuten. Izan ere, AEBek ez dute gobernu ezkertiar gehiago nahi Erdialdeko Amerikan, hau da, ez dute Kuba, Venezuela eta Honduras arteko elkartasunik sortzea nahi. AEBentzat, barkaezina zen Manuel Zelaya Hugo Chávezengana hurbildu izana.

Orduan, herritarrek Manuel Zelaya iparramerikarrei aurre egin zien lehen presidentea izan zela ikusi zutenean, ez zituzten Nazioarteko Diru Fondoaren eskakizunak eta transnazionalen agenda onartu, eta Petrocariberekin negoziatzea eta ALBA sinatzea erabaki zuten. Hain zuzen ere, jarraitzaile asko lortu zituen herritarren artean, eta hori oso kontuan hartu beharra dago.

Orain, Manuel Zelaya FNRPNko koordinatzailea nagusia da, erbestearen ondorioz aldatu egin delako eta jarrera progresistagoetara zein herritarrengana



## Sara Elisa Rosales (Honduras)

Emakumeak Erresistentzian Mugimenduko partaide eta Herri erresistentzia fronte nazionalako koordinakundeko finantza arduraduna

hurbildu delako. Bi urtez, erbestean izan da koordinatzailea, eta gainerakoek FNRP zuzendu dugu. Hain zuzen ere, bi indarren elkargunea da: Manuel Zelaya eta bere lidergoa eta FNRPko mugimendu antolatua indarra. Biek bat egin dute, herrialdearentzat beharrezkoak diren aldaketak lortzeko, berez ez dagoelako halakorik lortzerik.

**Zure ustez, zergatik irten dira emakume guztiak oldeka kalera, estatu-kolpearen ondorioz?**

Lehen esan dudanez, indarrak metatzeko prozesutik gentozen, eta emakumeek kalera irten ginen, estatu-kolpearen aurkako protestaldia egiteko asmoz. Egun horretan bertan, estatu-kolpearen aurkako Fronte Nazionala sortu zen, eta, hiru hilabete geroago, ondo baino hobeto ulertu genuen oso zaila izango zela Manuel Zelaya itzultzea. Izan ere, diktaduraren, transnazionalen eta enbaxada iparramerikarraren zapalkuntzapean geundenez, FNRP izena aukeratu genuen. Une horretan bertan, Erresistentziako Emakumeak sortu ziren, emakume asko Jauregi Nazionalaren aurrean geratu ginelako erresistentzia egiten, eta FNRPren lehenengo komunikatua egin genuen gizonezko kideekin batera. Gau horretan bertan, erresistentziako emakumeen taldea sortzeko erabakia hartu genuen.

Kolpearen aurkako kontzientzia gehiago areagotu zen emakumeen artean, eta emakume gehiago irten ziren kalera, kolpearen kontra zeudelako. Hala ere, une zehatz batean, emakumeak irten egin ziren kalera, FNRPrekin bat zetozelako antolaeran eta emakumeen eskubideak kontuan hartuko zituela uste zutelako.

Gure ustez, gizonezko kideak gaiaren inguruan sentzibilizatu dira, eta, teoritik praktikarako bidea luzea den arren, gure ikuspegitik egindako diskurtsoa FNRPn iragaztea lortzen badugu, behintzat, oso-oso kontuan hartu beharreko aldaketa izango da. Era berean, hautesle nazionalen %85en batek daukan Xiomara Castro Libre alderdiko hautagaia izatea lortzen badugu, oso-oso kontuan hartu beharreko beste aldaketa bat ere izango da. Egia da Manuel Zelayaren emaztea dela eta, hasiera batean, bere senarragatik irten zela kalera. Gero, ordea, ondotxo ulertu zuen herri osoa zegoela borrokan, eta, FNRPko mobilizazioan lehenengo kideak erori zirela ikusi zuenean, ba-

besleku zeukan enbaxadatik irten zen, eta FNRPrekin bat egin zuen. Hori dela eta, jarraitzaile asko ditu, eta oinarriko emakumeek erresistentziako emakumetzat hartzen dute, harrezkero gurekin egon delako. Manuel Zelaya eta bere emaztea Alderdi Liberaletik bota zituzten, eta, orain, FNRPkoak dira. Gainera, emaztea gure Libre alderdiko ustezko hautagaia ere bada. Gure iritziz, egitate hori gauzatzen bada, garaipena dugu ziurtatuta, boterearen bila joango garelako.

